

2017ko URTARRILAREN 3an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA (2016ko abenduaren 29ko bilkuraren jarraipena)
16-2 zk.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko 2016ko abenduaren 29an egindako ohiko osoko bilkura gaueko 24:00etan bukatu zela, Errregelamendu Organikoak 63. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Izan ere, artikulua horretan ezartzen baita bilkura guztiak hasitako egun berean bukatu beharko direla.

Beraz, horretarako beste deialdia egin eta gero, Udaltzarrak bilkura jarraitu du, ohiko izaeraz, 2017ko urtarrilaren 3an.

Zarautzen, 2017ko urtarrilaren 3a
Idazkaria

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko urtarrilaren 3an, iluntzeko zazpitan, Udaltzarrak bildu da, 2016ko abenduaren 29rako deituta zegoen eta egun hartako gaueko 24:00etan bukatu zen bilkura jarraitzeko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.

Ez dira etorri

Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.
Ane Arruti Lopetegi and.

Idazkaria

Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Jarduneko kontu-hartzailea Itziar Kortabarria Garitano and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ane Arruti Lopetegi andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola bere taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERRENDA

1.- 2017. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONARPENA.

2016 D 200 0014 espedientea

Prozeduraren arabera, lehenik eta behin, zuzenketa partzialak aztertzen eta bozkatzen jarraitu dute.

ZUZENKETA PARTZIALAK

– EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak

37. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

0702.226.02.335.10	BESTE GASTU BATZUK	-1.500 €
--------------------	--------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	ETORKINEI EUSKARAREN BEHARRA SENTIARAZI, EUREN KULTURA BALOREAN JARRIZ ETA EUSKARA ELEMENTU INTEGRATZAILE MODURA	1.500 €
--	--	---------

ADIERAZPENA:

Etorकिनak gure nazio-proiektura erakartzeko proiektuen sorkuntzan sakontzea beharrezkoa da, eta horretarako, diru-partidak sortzea ezinbestekoa da.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

38. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

0407.601.01.153.30	HIRI ALTZARIAK	-3.000 €
0406.601.01.453.00	BIDE SEINALEAK	-3.000 €

AMAIERAKO KREDITUA:

0401.600.10.153.10	ALDE ZAHARREKO SARBIDE KONTROLA	6.000 €
--------------------	---------------------------------	---------

ADIERAZPENA:

Udaletik eman diren prozesu parte-hartzaileetan jasotako eskaeretako bat da hau. Bestalde, zenbait herritarrek ere eskaerak egin dituzte Udalean sarrera erregistro bidez. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu alde zaharreko sarbide kontrolaren inguruko egokitze lanak egitea.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

39. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

1201.226.02.924.00	IKERKETA ETA PROIEKTUAK	-3.000 €
--------------------	-------------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	MUTXIO INGURUAREN BERRESKURAPENA	3.000 €
--	----------------------------------	---------

ADIERAZPENA:

Udaletik eman diren prozesu parte-hartzaileetan jasotako eskaeretako bat da hau. Inguru hori berreskuratzeko asmoarekin, bertako kantinaren jarduera eta inguruaren kudeaketa bermatuko duen lanketa egitea beharrezkoa da.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

40. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

1201.226.04.924.00	SENTSIBILIZAZIO PLANA	-5.000 €
--------------------	-----------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	UDAL ERABAKI NAGUSIETAN, HERRITARREN PARTE HARTZEA BERMATU	5.000 €
--	--	---------

ADIERAZPENA:

Zarauzko Erregelamendu Organikoa, Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016, apirilaren 27ko Legeari egokitzea ezinbestekoa da.

Bertan, besteak beste, herritarren parte hartzea bermatzea jasotzen da. Horretarako, herritarrei prozesu parte hartzaile baten eskaintza egitea interesgarria dela deritzogu, euren parte hartzea nola bermatu erabaki dezaten.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

41. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

1102.226.95.172.00	BIOANIZTASUNA BABESTEKO LANAK	-5.000 €
--------------------	-------------------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	MERKATU PLAZARI BALIO ERANTSIA GEHITZEKO APLIKAZIOA EGIN ETA SUSTATU	5.000 €
--	--	---------

ADIERAZPENA:

Udaletik eman diren prozesu parte-hartzaileetan jasotako eskaeretako bat da hau.

Merkatu Plaza modernizatzeko eta bezero berriei irekitzeko asmoz, diru-partida hau sortzea beharrezkoa dela deritzogu.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

42. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

1501.226.03.432.00	PUBLIZITATEA-BULTZAPEN KANPAINA	-15.000 €
--------------------	---------------------------------	-----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO DIRU PARTIDA	15.000 €
--	--	----------

ADIERAZPENA:

Genero-berdintasunaren aldeko diru partida berezi bat sortzea beharrezkoa dela deritzogu, eremu honetan urrats kualitatiboak emateko.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

43. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

1501.227.07.430.00	TURISMOKO PLAN ESTRATEGIKOA	-5.000 €
--------------------	-----------------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	OPARI ETA JOLAS EZ SEXISTEN INGURUKO KANPAINA	5.000 €
--	---	---------

ADIERAZPENA:

Merkataritza arloan ere, berdintasuna garatzeko diru-lerroak txertatzea garrantzitsua da. Hori dela eta, opari eta jolas ez sexisten inguruko kanpaina bultzatuko duen diru-partida sortzea planteatzen dugu.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

44. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

1801.226.99.920.00	BESTELAKO GASTUAK	-3.000 €
--------------------	-------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	UDALEKO EGITURA BERDINTASUNAREN ILDOAN LANEAN JARTZEKO, ORDEZKARI POLITIKO ETA TEKNIKOEI ZUZENDUTAKO TREBAKUNTZA	3.000 €
--	--	---------

ADIERAZPENA:

Udal langileen eta politikarien eguneroko lanean berdintasuna lantzeko eta garatzeko asmoz, ordezkarari politiko eta teknikoei zuzendutako trebakuntza egitea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, berdintasuna era efektibo eta erreal batean gauzatu dadin Udal mailan.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

45. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

0001.226.01.912.00	UDAL IKERKETAK (PERCO...)	-11.000 €
0001.481.01.912.00	EKITALDI BEREZIAK	-6.000 €
0901.471.01.441.10	TRANSFERENTZIA: AUTOBUS ZERBITZUA	-35.000 €

AMAIERAKO KREDITUA:

	LANERA BIZIKLETAZ DOAZENEL, ETA LANTEGIETAN BIZIKLETA APARKALEKUEKIN EGINDAKO INBERTSIOEI DIRU LAGUNTZA	52.000 €
--	---	----------

ADIERAZPENA:

Mugikortasun politikak bultzatze aldera eta kotxearen erabilpen desegokia baztertuko duen neurria da planteatzen dugun hau.

Bizikletaren erabilpena lanerako mugimenduetan sustatzeko asmoarekin, diru-laguntza partida sortzea ezinbestekoa da.

Horrez gain, lantegietan bizikletak gordetzeko egiten diren inbertsioei ere diruz laguntzea ere proposatzen dugu.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

46. ZUZENKETA

HASIERAKO KREDITUA:

0001.226.01.912.00	UDAL IKERKETAK (PERCO...)	-2.500 €
--------------------	---------------------------	----------

AMAIERAKO KREDITUA:

	BIZIKLETA ERABILTZAILE MOTA GUZTIEI ZUZENDUTAKO HEZIKETA	2.500 €
--	---	---------

ADIERAZPENA:

Bizikletaren erabilpen egokia sustatu asmoz, erabiltzaile mota guztiei (haurrak, helduak...) zuzendutako bide heziketa programak gauzatzea proposatzen dugu.

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Aipatutako gehiengoaz, atzera bota dute zuzenketa.

2017. urterako aurrekontua

Azkenik, 2017. urterako Aurrekontu orokorra eztabaidagai eta bozketan jarri dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	—	

Ondorioz, eta adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Ondoren, 2017. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRAREN proiektuaren proposamena ikusiko da. Udalbatza-buruak prestatu du, eta honako aurrekontu hauek osatzen dute: batetik, Udal aurrekontuak berak; eta, bestetik, “Zarautz-Lur SA” udal sozietatearen aurrekontuek; baita aurrekontu bateratuak ere.

Hurrena, bai IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako osoko zuzenketa bai EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ taldeek, banaka zein elkarrekin, aurkeztutako zuzenketa partzialak aztertu eta bozkatu dituzte.

Ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako osoko zuzenketari ezetza ematea.

Bigarrena.- EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek elkarrekin aurkeztutako 8. zuzenketa partziala onartzea, eta gainerako zuzenketa partzialak ezestea.

Hirugarrena.- Hasierako onespina ematea Zarauzko Udalaren 2017. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRari. Barnean, honako hauek sartzen dira: udal aurrekontua bera, eta Zarautz-Lur SA udal sozietatearen aurrekontua eta aurrekontu bateratua, ondoren kapituluka zehaztuta agertzen diren gastu- eta diru-sarreraren laburpenaren arabera, bai eta Aurrekontua gauzatzeko Arauak ere.

Laugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, Aurrekontua behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeke.

2017. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

1) UDALA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
I	Zuzeneko zergak	7.916.200,00
II	Zeharkako zergak	300.000,00
III	Tasak eta bestelako sarrerak	9.156.965,00
IV	Transferentzia arruntak	16.344.004,40
V	Ondare sarrerak	219.986,77
VI	Inbertsio errealean besterenganatzea	10.000,00
VII	Kapital transferentziak	78.674,00
VIII	Finantza-aktiboen aldaketak	30.000,00
IX	Finantza-pasiboen aldaketak	2.271.443,45
	Guztira Sarrerak	36.327.273,62

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
I	Langileen gastuak	10.913.641,44
II	Ondasun arrunten erosketak	16.138.317,91
III	Finantza-gastuak	93.337,00
IV	Transferentzia arruntak	3.783.535,01
V	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	30.000,00
VI	Inbertsio errealak	2.308.511,26
VII	Kapital transferentziak	680.000,00
VIII	Finantza-aktiboen aldaketak	30.000,00

IX	Finantza-pasiboen aldaketak	2.349.931,00
	Guztira Gastuak	36.327.273,62

2) ZARAUTZ - LUR

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
III	Tasak eta bestelako sarrerak	47.303,65
IV	Transferentzia arruntak	141.160,71
V	Ondare sarrerak	2.500,00
	Guztira Sarrerak	190.964,36

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
I	Pertsonal Gastuak	87.789,96
II	Ondasun arrunten erosketak	100.600,00
III	Finantza-gastuak	2.574,40
	Guztira Gastuak	190.964,36

3) UDAL AURREKONTU BATERATUA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
I	Zuzeneko zergak	7.916.200,00
II	Zeharkako zergak	300.000,00
III	Tasak eta bestelako sarrerak	9.204.268,65
IV	Transferentzia arruntak	16.344.004,40
V	Ondare sarrerak	222.486,77
VI	Inbertsio errealen besterenganatzea	10.000,00
VII	Kapital transferentziak	78.674,00
VIII	Finantza-aktiboen aldaketak	30.000,00
IX	Finantza-pasiboen aldaketak	2.271.443,45
	Guztira Sarrerak	36.377.077,27

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
I	Langileen gastuak	11.001.431,40
II	Ondasun arrunten erosketak	16.238.917,91
III	Finantza gastuak	95.911,40
IV	Transferentzia arruntak	3.642.374,30
V	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	30.000,00
VI	Inbertsio errealak	2.308.511,26
VII	Kapital transferentziak	680.000,00
VIII	Finantza-aktiboen aldaketak	30.000,00
IX	Finantza-pasiboen aldaketak	2.349.931,00
	Guztira Gastuak	36.377.077,27

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA 2017

I. TITULUA. ARAU OROKORRAK ETA KREDITU ALDAKETAK

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- Iraupena

Arauk aurrekontuak adina iraungo du, eta aurrekontuaren indarraldia luzatzen bada, luzapenean ere arau hau egongo da indarrean.

2. artikulua.- Esparru subjektiboa

Aurrekontua Gauzatze ARAU hau, orokorrean, Udalaren aurrekontua gauzatzean aplikatuko da, ondoren zehaztuko diren zehaztasunak kontuan hartuta.

3. artikulua.- Aurrekontu orokorra

2017 ekitaldirako Aurrekontu Orokorra honakoek osatzen dute:

Udalaren beraren aurrekontuak eta Zarautz-Lur udal sozietatearenak.

Udal aurrekontuan banakatuta eta partida askeetan azaltzen diren kopuruak izango dira sozietateari egin beharreko ekarpen onartuak.

4. artikulua.- Bermeak emateko muga

2017ko ekitaldi ekonomikoan Zarauzko Udalak abalab eman ahal izango ditu, baina bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbateko guztiaren %5eko muga izango dute abal horiek.

5. artikulua.- Zorpetzearen muga

2017ko ekitaldiaren barruan Udalak urtebetetik beherako zorpetze-eragiketak hitzartu ditzake, Diruzaintzan sor daitezkeen aldi baterako desfaseak finantzatzeko. Eragiketa horiek hitzartzeko, alde aurretik Udalbatzarrak onartu beharko ditu.

Diruzaintzako eragiketa horiek hitzartzea eta amortizatzea aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

6. artikulua.- Aurrekontuaren egitura

Aurrekontu orokorraren egitura bat dator abenduaren 24ko 86/2015 Foru Dekretuarekin; Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen du foru dekretu horrek.

Gastuen Egoeran sartutako kredituak irizpide hauen arabera sailkatu dira:

- a) Organoak: Udalaren antolamendu-egituraren arabera (departamentu eta arloak). Ikus eranskina.
- b) Programak: Udalak egin beharreko programa eta jardueren arabera.
- c) Ekonomia: Gastuaren ezaugarrien arabera.

Organoen, programen eta ekonomiaren arabera egindako sailkapen horren batura da aurrekontu-partida, eta bertan egingo da kredituen, kreditu-aldaketen eta gastuen kontabilitate-erregistroa.

Diru-sarreraren aurreikuspenak irizpide hauen arabera sailkatu dira:

- a) Organoak: Udalaren antolamendu egituraren arabera (departamentu eta arloak). Ikus eranskina.
- b) Ekonomia: Diru-sarreraren izaeraren arabera.

7. artikulua.- Kredituen lotura juridikoak

1. Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean baimendutako helburu zehatzetarako soilik izango dira, edo, bestela, behar bezala onartutako aldatetarako, eta mugatzaileak eta lotesleak izango dira. Ondorioz, ezingo da kreditu horien zenbatekotik gorako gastu-konpromisorik hartu. Beraz, arau hori hausten duten akordio, ebazpen eta egintza administratiboak erabat baliogabeak izango dira, eta erantzukizunak ere ekar ditzake.

Muga hori betetzen ote den egiaztatzeko, hurrengo puntuan jarritako lotura juridikoaren maila hartuko da kontuan.

2. Hauek dira ezartzen diren lotura juridikoen mailak:
 - Kapituluak, pertsonaleko gastuei buruzko gastuetan.
 - Departamentua maila organikoan, eta kapituluak maila ekonomikoan, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketekin, finantza-gastuekin eta finantza-pasiboen gastu arrunten eta kapitalekoen transferentzia eta diru-laguntzekin, inbertsio errealekin eta finantza-aktiboen aldaketekin lotutako gastuetan.

Kreditua agortuta duen partida batean gastu bat baimendu behar bada loturaren kontura, beharrezkoa izango da udal kontu-hartzaileari txosten-proposamen bat aurkeztea. Bertan zehaztuko dira bai erabiliko den kreditu berriaren jatorrizko partida, baita gastu-proposamenaren eredia ere.

II. KAPITULUA. KREDITU ALDAKETAK

8. artikulua.- Kreditu-aldaketak

Nahikoa kreditu eduki gabe ere, lotura juridikoaren mailatik gorako gastu bat egin behar denean, dagokion kreditu-aldaketarako espedientea izapidetuko da, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauko 28. artikuluan zerrendatutako artetik bat aukeratuta, eta Aurrekontua Gauzatzeko Arau honetan araututako zehaztasunekin bat etorritik.

Edozein kreditu aldatu ahal izateko, zergatik aldatu nahi den arrazoitu beharko da, eta, era berean, azaldu egin beharko da aldaketa horrek nolako eragina izango duen aurrekontua egiterakoan ezarritako helburuetan.

Udaleko Kontu-hartzaileak kreditu-aldaketa guztiei buruzko txostenak egingo ditu eta horietako bakoitzari hurrenkeraren arabera zenbakia jarriko dio, gero Kontu Nagusian justifikatzeko.

Lotura juridikoko poltsa baten barruan beste aurrekontu-partida bat sortzen bada, hori kontuen doitzea izango da, eta ez da kreditu aldaketatzat hartuko. Aurrekontu-partida horrek ez du zenbatekoa aldatzen, eta egindako gastuari buruzko informazio zabalagoa eskaintzen du.

Era berean, aurrekontu-partidak sortu ahal izango dira 6, 7 eta 8. kapituluetan, aurrekontuan aurreikusitako jarduketak beste era batean betetzeko, baina xede berarekin, eta aurrekontuko kreditu-transferentzien bidez hornituko dira.

9. artikulua.- Kreditu-transferentziak

Kreditua transferitzeko espedientea onartuko da, gastu bat egin nahi bada, eta gastu hori egiteko partidako kreditua nahikoa ez denean. Horretarako kreditua lotura juridiko desberdineko beste kontu-partida batzuetatik lortuko da, baina gastuen egoerako zenbateko osoa aldatu gabe.

Programa bereko kreditu-transferentziak onartzeko organo eskuduna toki entitateko udalburua izango da, inbertsio errealetarako diru-izendapenak murrizten diren transferentzietan izan ezik. Azken horietan, Udalbatzarrak onartu beharko ditu, hurrenez hurren.

Era berean, programen arteko transferentziak toki entitateko udalburuak onartuko ditu, baldin jatorrizko programaren eta xede programaren artean metatutako aldakuntzak hasieran aurreikusitako diru-izendapenaren %25 gainditzen ez badu, eta betiere, ez badituzte inbertsio errealetarako aurreikusitako diru-izendapenak murrizten.

Gastua handitzeko beharra duen departamentuak emango dio hasiera espedienteari. Espediente horretan, dagokion zinegotzi arduradunen adostasuna eta Udaleko Kontu-hartzailearen txostena jaso behar dira derrigorrez.

10. artikulua.- Kredituen habilitazioa

Gastuen egoeran kreditua sortu ahal izango dute honako diru-sarrera hauek:

- a) Pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak, Udalarekin batera bere eskumeneko gastuak ordaintzeko.
- b) Ondare-ondasunak besterentzetik datozenak, aurreikusi gabeko hirigintza-aprobetxamenduak.
- c) Zerbitzuak ematek jasotakoak.
- d) Maileguz itzulketetatik datozenak.

Toki entitateko udalburua da diru-sarrera helburudunengatik kredituen habilitazioa onartzeko eskumena duen organoa.

Udaleko Kontu-hartzailetzak emango dio hasiera espedienteari.

11. artikulua.- Kreditu-soberakinak txertatzea

Udalan indarrean dagoen gastuen aurrekontuan sartu ahal izango dira aurreko ekitaldiko ordainketa-kredituak, baldin 21/2003 Foru Arauak 32.1 artikuluan jarritako baldintzak betetzen badituzte.

Jatorrizko ekitaldian kreditu-soberakinen txertaketa hori finantzatzeko behar beste finantza-baliabide izanez gero, alkateak onartuko du txertatze hori.

Jatorrizko ekitaldian behar beste finantza-baliabiderik ez badago, Ogasuneko zinegotziak, aurrez Udala Kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, lehentasunak ezarriko ditu aurrekontuan txertatu beharreko jarduketetan, aurreko ekitaldiko konpromisoekin bat etorriz.

Hala eta guztiz ere, txertaketa ekainaren 30a baino lehen egin beharko da.

Txertatutako kredituek jatorrizko aurrekontuan izango zuketena xede bera izango dute.

Txertaketa egiteko, nahikoa finantza-baliabide egon beharko da.

11 bis. artikulua.- Kredituak aurretiaz txertatzea

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badute eta guztiok batera baldintza hauek betetzen badituzte:

- Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.
- Zerbitzuburuaren txostenaren bitartez kreditua aurretiaz txertatzeko beharra frogatzea.
- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, baldin eta diru-sarrerara helburudunen bitartez finantzatutako kapital eragiketak ez badira.

Aurretiazko txertaketa ekainaren 30a baino lehen egin behar da beti.

Aurretiaz txertatutako kredituen helburua Jatorrizko Aurrekontuan edukiko zuketena bera izango da.

Kredituak aurretiaz txertatuko dira, baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude.

Udalburuak onartuko du kredituak aurretiaz txertatzea, fondoek kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste, finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen aurretiazko txertaketa behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin betiko onartuko da.

12. artikulua.- Kreditu gehigarriak

Baldin ekitaldian zehar hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin den gastu bat egin behar bada, eta gastu hori egiteko aurrekontu-krediturik ez badago, aparteko kreditu bat onartu ahal izango da.

Kreditu gehigarriak ondorengo baliabide baten edo askoren bitartez finantza daitezke:

- Altxortegiko soberakin likidoa.
- Aurrekontuan aurreikusi gabeko edo aurreikusitako diru-sarrerak baino diru-sarrera handiagoak.
- Murriztu daitezkeen kreditu konprometituko gabeak baliogabetzea edo horiei baja ematea, programaren xedek aldatu gabe.
- Mailegu operazioak

Gastua handitzeko beharra duen departamentuak emango dio hasiera espedienteari. Espediente horretan, dagokion zinegotzi arduradunen adostasuna eta Udaleko Kontu-hartzailetzaren txostena jaso behar dira derrigorrez.

Kreditu gehigarriak onartzeko eskumena Udaltzarrarena izango da; aldiz, entitateko udalburuaren eskumenekoa izango da, baldin eta horien metaketak aurrekontuko hasierako kredituen %5 gainditzen badu.

13. artikulua.- Kredituak zabaltzea

Udaleko hurrengo gastuen aurrekontu-partidak zabaldu egin daitezke, partida horietako bakoitzerako aurreikusitako diru-sarrerak gainditzen dituen kopuruaren arabera:

1. 1 0507.227.11.231.10 – Zerbitzuak: Etxelaguntza
2 0507.310.15.231.10 – Etxelaguntza zerbitzua
2 0507.420.09.231.10 – F.A. – Etxelaguntza
2. 1 0201.226.99.920.00 – Hirugarrenei egindako kalteen ordainketa
2 0201.399.09.920.00 – Beste sarrera batzuk
3. 1 0406.210.01.453.00 – Bideetako azpiegiturak
2 0401.340.01.920.00 – Ibilgailuak hirigunera sartzeko txartela
2 0201.550.01.920.00 – Emakida administratiboak
4. 1 0403.210.01.161.00 – Mantentze-lanak: Azpiegiturak
2 0403.310.09.161.00 – Ur-horniduraren tasa
2 0403.310.20.160.00 – Ur-azpiegituraren kanona
5. 1 0503.480.01.231.30 – Gizarte beharretarako laguntzak
2 0503.410.04.231.30 – E.J. Larrialdi Plana

Kontu-hartzailtza Nagusiak beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, kreditua zabaldu egingo da.

Toki entitateko udalburuak, 2015ko uztailaren 7ko Dekretu bidez, Ogasun eta Finantzako zinegotzi ordezkariaren esku utzi du kredituak zabaltzeko baimena emateko aukera. Horretarako espedienteko txostena sinatuko du.

Kreditu Globala ere zabaldu ahal izango da, baldin zergetako diru-sarreraren gainean eskubide handiagoak aitortzen badira.

Espedienteari Udaleko Kontu-hartzailtzak emango dio hasiera, eta bertan, aurrekontu-oreka dagoela adierazten duen txostena sartu beharko du.

Alkateak onartuko du Kreditu Globalaren espedientea.

14. artikulua.- Kredituak baliogabetzea

Ogasun eta Finantzatako zinegotzi arduradunak kredituak baliogabetzeko eska diezaiokie Tokiko Gobernu Batzarrari, ondorengo kasuetan:

- Aurreko ekitaldia likidatuta, kutxako soberakina negatiboa izanez gero.
- Diru-sarreraren aurrekontua gauzatzean, baldin zenbatekoak, guztira, hasierako aurreikuspenetan jasotakoak baino askoz baxuagoak badira.

II. TITULUA. GASTUAK

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

15. artikulua.- Aurrekontuaren urtealdia

Gastuen egoerako kredituen kontura, ekitaldian zehar egindako gastuek sortutako obligazioak bakarrik kontabiliza daitezke.

Salbuespen modura, ondorengo obligazioak aplikatuko zaizkio indarrean dagoen aurrekontuari:

- Pertsonaleko atzerakinak.
- Txertatutako kreditu soberakinak.
- Aurreko ekitaldietako gastuak, baldin horien gauzatzea aurrez onartu ez bazen. Horrelakoetan, departamentuko teknikari arduradunak txostena aurkeztu beharko du, eta bertan ziurtatu beharko du, hori egiten bada, ez zaiela kalterik edo murrizketarik egingo ekitaldiko betebeharrei.

16. artikulua.- Gastuen kudeaketarako faseak

Gastuen aurrekontua fase hauetan kudeatuko da:

- a) Gastua baimentzea
- b) Gastua erabiltzea edo konprometitzea
- c) Obligazioa onartzea
- d) Ordainketa agintzea
- e) Ordaintzea

II. KAPITULUA. AURREKONTU-KUDEAKETA

17. artikulua.- Kreditu ez-erabilgarriak

Aurrekontua gauzatzean oreka ekonomiko-finantzarioa arriskuan jar dezakeenik gertatuz gero, Ogasun eta Finantzako zinegotzi ordezkariak, Udal Kontu-hartzailezarekin batera, kreditu batzuk ez-erabilgarri izenda ditzake.

18. artikulua.- Gastuak baimentzea eta erabiltzea

Gastua baimentzea hauxe da: gastu jakin bat egitea erabakitzen duen ekintza. Gastu horren zenbatekoa zehatza edo gutxi gorabeherakoa izango da, eta ordainketa-kreditu jakin baten edo konpromiso-kreditu baten kontura egingo da.

2015eko uztailaren 7ko Dekretu bidez, toki entitateko udalburuak eskumena eman ondoren, Ogasun eta Finantzako zinegotzi ordezkariari dagokio 12.000 €-tik beherako gastuak baimendu eta erabiltzea (aldez aurretik beharrezkoa izango da kontu-hartzailearen oniritzia) dekretuz onartuko den ereduaren arabera. Baimen horiek ekitaldi bakoitzeko abenduaren 10a baino lehen egin beharko dira; hau da, ez da prozedura honen bitartez egindako gasturik onartuko egun horretatik aurrera.

Arau horretatik kanpo gelditzen dira IV. eta VII. kapituluetakoko gastuak. Horietan Udalbatzarra, Tokiko Gobernu Batzarra edo toki entitateko udalburua izango da organo eskuduna, haien eskumenetan adierazitako mugen arabera. Alkatetzak IV. eta VII. kapituluetakoko gastuetan duen eskumena Gobernu Batzarrari eskuordetu zion, 2015ko uztailaren 7ko 23ko Alkatetzaren Dekretu bidez: Norgehiagoka araubideko laguntza eta diru-laguntzak emateko deialdia onartzea, bai eta horien erabakia hartzea ere.

Eskuordetza horren esparrutik kanpo daude eta, beraz, Alkatetzaren esku geratzen dira ondokoak: alde batetik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 22.2 artikuluan aurreikusten duen zuzeneko laguntza eta diru-laguntza oro ematea, eta horien ondorengo formalizazio-hitzarmenak sinatzea; eta bestetik, gizarte-larrialdiko planen, banan banako laguntza planen eta abarren arabera baimentzen diren gizarte-arloko laguntzak.

Udalburuak 2015ko uztailaren 5ean emandako eskumenari esker, Tokiko Gobernu Batzarraren esku egongo da Aurrekontuaren %5 eta %10 bitarteko gastuak baimentzea eta erabiltzea. Aurretik kontu-hartzailearen txostena behar da.

Toki entitateko Udalbatzarraren eskumena da aurrekontuaren %10etik gorako gastuak baimendu eta erabiltzea. Aurretik kontu-hartzailearen txostena behar da.

19. artikulua.- Gastuak erabiltzea

Gastua erabiltzea hauxe da: bidezkoak diren lege izapideak bete ondoren, kopuru eta baldintza zehatz bateko gastua formalizatzea, onuradun edo esleipendun baten alde.

Gastua onartzeko eskumena duen organoa Gastuaren Baimena egiteko bera izango da. Gastua erabiltzeko, oro har, espedientea ireki behar da, eta bertan sartuko da kontabilitateko "D" agiria.

Espedientea hastean gastuaren zenbateko zehatza eta jasotzailearen izena jakinez gero, kontabilitateko faseak metatu egingo dira kontabilitateko "AD" agiriaren bitartez: toki entitateak lege hartutako konpromisoak, baldin egin beharreko zerbitzu, obra edo horniduraren kostua ezaguna bada (traktu jarraituko kontratuak, errentamenduak, maileguen interes eta amortizazioak eta zuzenean kontratatutako erosketak).

20. artikulua.- Obligazioak onartzea

Obligazioa onartzeko ekintzaren bitartez Administrazioari halako kreditu bat eska dakioke, behar bezala egiaztatu delako erabiliko den prestazioa.

Hori onartzeko organo eskuduna toki entitateko udalburua da.

Obligazioak onartu ahal izateko, espedientea ireki beharko da, eta bertan kontabilitateko "O" agiria sartuko da. Horren aurretik departamentu-buruak oniritzia eman beharko dio fakturari bertan sinatu. Departamentu-buruak egon ezean edo gaixo baldin bada, berak izendatutako funtzionarioak sinatuko du.

Obligazioa onartu aurretik, dagokion departamentuko funtzionario-buruak fakturaren gainean sinatu beharko du, eta horrela materiala, obra edo hornidura hartu izanaren adierazpena egin eta horrekiko adostasuna azalduko du.

Kontrartistek edota hornitzaileek egindako fakturak Udalean aurkeztuko dira, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, enpresariei eta profesionalari dagokienean faktura egin eta emateko betebeharra arautzen duenak, (2004/06/25eko GAOn -LPV 2004\236; FFG 046.283-) eta horrekin bat datorren legediak agintzen duen bezala. Gutxienez ondorengo datuak agertu beharko dituzte:

- Udalaren edo Sozietatearen identifikazio garbia (izena, IFZ...)
- Kontrartistaren identifikazioa.
- Fakturaren zenbakia eta data.
- Hornidura edo zerbitzuaren deskribapen nahikoa.
- Enkargua egin zuen zentro kudeatzailea.
- Gastuaren espediente-zenbakia, esleipenaren unean jakinarazitakoa.
- Hala badagokio, gastu hori dela-eta lehendik fakturatutako zenbatekoa
- BEZA zehaztuta, edo horren salbuespenaren adierazpena.
- Kontrartistaren sinadura.

Gastuaren ezaugarriak direla-eta obligazioa baimentzea, erabiltzea eta onartzea aldi berean gertatuz gero, kontabilitateko "ADO" agiria izapidetuko da: eragiketa arruntak, obligazioaren galdagarritasuna berehalakoa dutenean (1.500 €-tik beherako erosketak, dieta eta joan-etorri gastuak, bestelako finantza-gastuak eta pertsonalari egindako diru-aurrerakinak). Talde horretan sartuko dira, pertsonalaren hileroko nominen ordainketa eta Udalaren kontura ordainduko diren Gizarte Segurantzak eta Elkarkidetzak kuotak ere.

21. artikulua.- Ordaintzeko agintzea

Ordaintzeko agindua hauxe da: hartutako obligazioa ordaintzeko Diruzaintzari ematen zaion agindua.

Hori egiteko organo eskuduna toki entitateko udalburua izango da. Fase honetan kontabilitateko "ME" agiria izapidetuko da.

Ordaintzeko agindua, oro har, Udaleko Diruzaintzak egingo duen ordainketa-aginduen zerrendan oinarrituta egingo da.

22. artikulua.- Era guztietako ordainketak egiteko irizpide orokorrak

Arau orokor gisa, ordainketen gauzatzeko materiala Udal Diruzaintzak egingo du, indarrean dauden lege- eta erregelamendu-irizpideak jarraituta.

Egindako ordainketak ondorengo bideak erabilita egiaztatuko dira:

- a) **Transferentzia.** Hauxe izango da ordainketak egiteko ohiko bidea. Transferentziak hirugarrenak adierazitako banku-kontuan sartuko dira eta hiru sinadurekin baimenduko dira, alkatearen, kontu-hartzailearen eta diruzainarekin (titularrak edo ordezkioak). Transferentziak onartzeko zerrendak gutxienez datu hauek izango ditu: bankuaren izena, kontuaren zenbakia eta transferentziaren eguna.
- b) **Ordainagiriak eta zergak.** Jaulkitzailearen kodea, atzizkia, erreferentzia, identifikadorea eta zenbatekoa duten ordainagiriak eta zergak ordaintzeko erabiliko dira. Sinadura bakarra beharko da, diruzainarena (titularra nahiz ordezkioa).
- c) **Txekea.** Ordainketak egiteko bide hau ez da ohikoa izango. Txekeak izendunak izango dira eta alkatearen, kontu-hartzailearen eta diruzainaren sinadurak izango dituzte.
- d) **Ordainketak eskudirutan.** Eskudirutarako kutxa bat edukitzea baimentzen da. Diru hori eguneroko eragiketa txikiak egiteko erabiliko da. Izan ere, eragiketa horien zenbatekoa hain txikia izanda, desegokia da edo ez oso eraginkorra gastuak kudeatzeko prozedura orokorrari jarraitzea, ez behintzat udal zerbitzuen funtzionamenduaren efikaziari eta eraginkortasunari kalterik egin gabe. Fondo horien titular Udal Diruzaina izendatu da. Gastuak egiteko kutxa horretako dirua erabiltzen badu, agiri bidez ziurtatu beharko du, dagokion fakturak aurkeztuta.

Aldeko obligazioaren onuradun diren pertsona fisiko edo juridikoek jasoko dituzte ordainak, Salbuespen izango dira kreditu lagapenak edo organo judizial edo administratiboek agindutako enbargoak.

Salbuespen moduan, honela ere ordain daiteke:

- a) **Kontuan sartzea.** Bankuan helbideratzeko agindua jarri den kasuetan: Elkarkidetzak, finantza-zama, renting-ak, hornidurak eta abar.

- b) **Kreditu txartelak.** Alkateak udal kudeaketaren barruan burututako joan-etorriek eragindako gastuak, eta baita ere, bitarteko telematikoen bidez ordaindu behar direnean, zinegotziek nahiz baimendutako funtzionarioek udal kudeaketan egindako gastuak, hala nola, ibilgailuetarako erregaia, autobideko bide-sariak, alojamendua, eta abar.

Hirugarren batek epea gainditutako zorrik baldin badu ordaintzeko Udalaren alde eta, aldi berean, entitate horretatik hartzekodun bada, bi zorrik konpentsatu egingo dira, eta, hala badagokio, bien arteko alde positiboa ordainduko zaio. Aldez aurretik beharrezkoa izango da udal diruzainak txostena egitea.

Diruzaintzak kontabilitateko zerbitzuari bidaliko dizkio lehendik eginda zeuden eta konpentsazio-agindu horiek eragiten dituzten ordainketa-aginduak, hark berriro egin ditzan, diruzaintzako txostenarekin bat etorritik ordainketa egoera berrira egokituta.

Ziurtagiriak edo fakturak kobratzeko eskubideak lagatzea:

- a) Aukera hau araututa dauka urriaren 30eko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategiaren 218. artikuluan.
- b) Lagatzaileak epea gainditutako zorrik izanez gero Udalarekin, lagapena egingo da hirugarrenari jasotzea dagokion kantitateetik Udalarari zor diona kenduta.
- c) Lagapena Udal Kontu-hartzailetzari agiri bidez jakinaraziko zaio, eta ondorioak izango ditu jakinarazpena jasotzen den unetik.
- d) Kontratu oso baterako lagapen orokorrik ez da onartuko, ezta etorkizunerako lagapenik ere. Lagapena onartutako ziurtagiri edo faktura bakoitzeko egingo da.
- e) Lagapen-agiriaren "Berri Jasotzeko" organo eskuduna kontu-hartzailea bera edo horrek izendatutako beste funtzionario bat izango da (Kontu-hartzailetzakoa). Berri jasotzeko ekintzak barrurako bakarrik balio du, eta lagapena onartzen dela adierazteko bakarrik da.
- f) Ziurtagiri edo faktura beraren bi lagapen jakinarazpen edo gehiago aurkezten badira, eta bien artean zenbatekoa gainditzen badute, lagapenak onartuko dira Udal Kontu-hartzailetzara sartutako hurrenkeraren arabera.
- g) Lagapen-agiria merkataritzako artekariaren, Udaleko idazkari nagusiaren edo kontu-hartzaile nagusiaren aurrean egin ahal izango da. Idazkariaren edo kontu-hartzailearen aurrean eginez gero, ordezkaritza edo ahalmena notarioaren agiri bitartez egiaztatuta beharko da.

Organo judizialak edo administratiboak kredituak enbargatzea. Horrelakoetan ordaintzeko agindua organo enbargatzailearen alde emango du Udalak, eta enbargatua nor den adieraziko du.

Finantza-erakunde berean, Udalarenak diren kontu-korronteen artean fondoak mugitu ahal izateko, sinadura bakarra nahikoa izango da, Diruzainarena edo bere ordezkorena.

III. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO-PROZEDURA

23. artikulua.- Pertsonaleko gastuak

Hilabeteko nominak izango dira hileroko ADO agiriaren euskarri.

Gizarte Segurantzari eta Elkarkidetzari ordaindutako kuotak ere hileroko kontabilitateko ADO agiriaren euskarri frogagarriak izango dira.

Udalaren edo bere erakunde autonomoen zerbitzura dagoen pertsonalak kalte-ordainak edo konpentsazioak jaso ahal izateko, artikulua honetan ezartzen diren baldintza eta betebeharrak bete beharko dituzte, honako kasuetan:

a) *Zerbitzuak eragindako joan-etorriak*

Joan-etorri hauek pertsonalak bere laneko eginkizunak betetzeko nahitaez egin behar dituenak dira edo, egoerak bultzatuta, horrela agindutako lanengatik egiten direnak. Zerbitzuaren ondorioz egin beharreko joan-etorriak departamentuetako buruek baimendu behar dituzte.

Pertsonalak ondorengo kalte-ordain edo konpentsazioak jaso ditzake:

1. **Bidaia-gastuak:** benetan gastatu eta justifikatutako kopurua ordainduko da, eta ibilgailu partikularra erabiltzen denean kilometroko 0,29€. Era berean, ordaindu egingo dira aparkalekuko eta autobideko diru-saritan gastatu eta justifikatutako gastuak.

Oro har, joan-etorriak garraio publikoetan egingo dira; hala ere, kasu bakoitzaren egoera zehatzak horrela eskatuta, ibilgailu partikularra edo bestelako garraio bide bat erabiltzea baimen daiteke.

2. Mantenu-gastuak: irteera egunetik sortuko ditu eskubideak, eta joan eta etorri bitarteko egunak hartuko dira kontuan, baina betiere, gehienez hogeita hamar egun natural izango dira. Arratsaldeko hirurak ondoren irtenez gero, %50eko ordaina eskuratuko da egun horretan; berdin jokatuko da itzultzeko egunean ere, baldin ordu horren ondoren ekiten bazaio bidaiari. Eguneko ordaina 42 eurokoa izango da, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak arautzen duenari jarraituz.
3. Ostatu-gastuak: ostatu gastutzat hartuko dira gelari eta gosariari dagozkionak. Benetan gastatu eta justifikatutako kopurua jasoko da.

b) *Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetara joatea:*

Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetara joateagatik, ondorengo kalte-ordainak jaso daitezke:

1. Bidaia-gastuak: benetan gastatu eta justifikatutako kopurua ordainduko da, eta ibilgailu partikularra erabiltzen denean 0,2€ kilometroko. Era berean, ordaindu egingo dira aparkalekuko eta autobideko diru-saritan gastatu eta justifikatutako gastuak.
Oro har, joan-etorriak garraio publikoetan egingo dira; hala ere, kasu bakoitzaren egoera zehatzak horrela eskatuta, ibilgailu partikularra edo bestelako garraio bide bat erabiltzea baimen daiteke.
2. Otordu-gastuak: egunean bazkaltzen edo afaltzen gastatutako kopurua da, bakoitza bere aldetik kontuan hartuta. Benetan gastatu eta justifikatutako diru-kopurua ordainduko da otordu-gastuengatik; diru-kopuru hori, gehienez, mantenu-gastuetarako jarritako zenbatekoaren %50ekoa izango da, otordu bakoitzeko.
3. Ostatu-gastuak: ostatu gastutzat hartuko dira gela eta gosariari dagozkionak. Benetan gastatu eta justifikatutako kopurua jasoko da.

Goian aipatutako gastuez gain, ordaintzekoak izango dira dagokion ikastaroan izena eman eta bertara joateak sortzen dituen gastuak ere. Prestakuntza ikastaroetara joateko baimena toki entitateko udalburuak emango du eta ordaingarriak diren gastuak zehaztuko ditu.

c) *Kide anitzeko organoetan bertaratzea:*

Dedikazio eskulisiboa ez duten Udaltzarreko kideek Udaltzarrean onartutako ordainsaria jasoko dute, parte hartzen duten kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik.

Apirilaren 21eko 11/1999 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak aldatzen dituenak, eta hori garatzeko araudiak arautzen dituzte udal taldeak.

24. artikulua.- Diru-laguntzak eta transferentziak

Zarauzko Udaleko diru-laguntzen kudeaketan honakoak aplikatuko dira: Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2016ko maiatzaren 17ko GAO, 92 zk); Zarauzko Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko GAO, 140 zk.); departamentu bakoitzeko oinarri bereziak; eta azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak –legearen garapenerako erregelamendua onartzen duenak– ezarritako xedapenak.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko organo eskuduna toki entitateko Udaltzarra izango da.

25. artikulua.- Inbertsioak

Espedientean honako dokumentu hauek jasoko dira:

- a) Aurrekontua, kostu osoaren berri emanda.
- b) Baldintzen orriak.
- c) Amortizazioa, ustezko erabilera aldia adierazita.
- d) Etorbizuneko funtzionamendu-gastuen eta kontserbazio-gastuen ustezko kalkulua.
- e) Aurrekontu erabileraren proposamena.

IV. KAPITULUA. JUSTIFIKATU BEHARREKO ORDAINAK. KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK ETA APLIKATU GABEKO AURRETIKO ORDAINKETAK

26. artikulua.- Justifikatu beharreko ordainketak

Ordainketa-agindu guztiak agiri bidez justifikatzeko printzipioaren salbuespen modura, eta ordainketa hori hurrengo

artikuluan araututako Kutxa Finkoko Aurrerakinen bidez egitea ezinezkoa denean, "justifikatu beharreko" ordainketa-aginduak eman ahal izango dira, honelako gastuetan:

- Joan-etorrietako gastuak.
- Antzeko beste gastu batzuk edo, udalburuaren iritziz, beren konplexutasunagatik tratamendu hori eman zaien gastuak.

Egindako ordainketak dirua jaso eta gehienez hilabeteko epean justifikatu beharko dira, eta, betiere, ekitaldia amaitu baino lehen.

Onuradunak berak du jasotako dirua zaintzeko ardura.

Oro har, ezingo da justifikatu beharreko ordainketa-agiri berririk eman aurrekontu kontzeptu berberaren izenean, baldin onuradunak oraindik justifikatu beharreko dirurik badu, eta baldin horiek justifikatzeko gehienezko epea dagozkion kontuak aurkeztu gabe pasa bada.

Kontabilitatea arduratuko da justifikatu beharreko ordainketen erregistroaz. Bertan, onuradunaren izena, emandako kopurua, helburua eta justifikatzeko azken eguna agertuko dira.

Kontu-hartzaitzak fiskalizatuko ditu egindako gastuak, eta honako puntuak adieraziko ditu:

- Kontratazio arauak bete direla, arauzko atxikipenak egin direla, BEZa eta beste zerga batzuk behar bezala aplikatu direla, eta abar.
- Egiaztagiriak jatorrizkoak direla, eta aurrerakina baimentzeko adierazitako gastuekin bat datozela.
- Justifikazioa organo eskudunak onartu duela.
- Justifikazioa emandako epean egin dela.

Kontu-hartzaitzak toki entitateko udalburuari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala justifikatu gabeko kontuak, gero haiek erantzukizunak eta, beharrezkoa izanez gero, dirua itzultzeko eska dezaten.

27. artikulua.- Kutxa Finkoko Aurrerakinak

Salbuespen modura, eta horretarako arrazoiak daudenean, departamentuentzat eskudirua duten kutzak ireki ahalko dira, finantza-erakundeetako kontu-korronteen bitartez, eta "Zarauzko Udala, Departamentua" izenarekin.

Aipatutako kontuak sortzeko eta edozein gestio egiteko, beharrezkoak izango dira dagokion departamentuko zinegotziaren eta teknikari arduradunaren sinadurak.

Kopuru txikiko eta berehala ordaintzeko funtzionamendu-gastu hauetarako:

- Pertsonalaren joan-etorrien gastuak.
- Pakete garraioen ordainketak.
- 300€-tik beherako ordezk material erosketak.
- "Jasotzean ordaintzeko" sistema bidez egin ohi diren erosketak.

Justifikatu beharreko gastuak Kutxa Finkoko Aurrerakin moduan ordaindu ahal izango dira.

Orokorrean, Kutxa Finkoko Aurrerakintzat joko dira presazko beharretarako egiten diren aurrekontuz kanpoko diru-hornidura iraunkorrak. Gastu horiek, gero, ekitaldiko aurrekontuan jasoko dira.

Oro har, Kutxa Finkoko Aurrerakinak gehienez 450€-koak izango dira, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik; kasu horiek toki entitateko udalburuaren dekretu bidez baimenduko dira, dagokien arloko zinegotzi arduradunak hala proposatuta.

Kutxa Finkoko Aurrerakinak Altxortegiaren kontura ordainduko dira.

Kutxa Finkoko Aurrerakinak jasotzen dituztenek beren altxortegiko baliabideak gutxitzen doazen heinean eta berriz jartzea zentzuzkoa denean justifikatuko dituzte egindako gastuak, eta, beranduen jota, aurrekontu ekitaldia amaitu aurretik.

Fondoak berriz jartzeko Ordainketa-aginduak justifikatutako kopuruei dagozkien aurrekontu- kontzeptuetan oinarrituta egingo dira.

Onuradunak berak du jasotako dirua zaintzeko ardura.

Aurrerakinak jaso dituztenek jasotako diruaren kontrola eraman beharko dute kontu korronteen liburu batean, zor-hartzeako adierazita, eta liburu horretan sarrerak eta fakturen bidez justifikatutako irteerak idatziko dira.

Kutxa Finkoko Aurrerakinen jasotzaileek Udal Kontu-hartzaitzari eman beharko diote jasotako diruaren berri, eta horretarako kontabilitatea eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuko dira. Berri emate hori aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da beranduen jota, eta betiere, abenduaren 15a baino lehen.

Ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n Fondoan Kontu-hartzaitzak Kutxa Finkoko Aurrerakinen egoera fiskalizatuko du, eta horretarako, honakoak aztertuko ditu: egun horretara arte aurkeztu gabeko gastuen egiaztagiriak, kontu korrontearen estraktu eguneratua eta oraindik dirua duela adierazteko jasotzaileak egindako egiaztapena.

III. TITULUA. DIRU-SARRERAK

28. artikulua.- Udalaren altxor publikoa

Udalaren altxor publikoa Udalaren finantza-baliabide guztiek osatzen dute, bai aurrekontu-eragiketek bai aurrekontukoak ez diren eragiketek.

Udalaren altxor publikoa kutxa bakarraren printzipioaren bitartez arautuko da.

Hilabete bakoitza amaitu eta ondorengo hamar egunetan Udal Altxortegiko fondoak kontatuko dira; diruzainak bere sinadurarekin baliozkotzat joko du informazio hori.

Hiru hilabeterik behin, 21/2003 Foru Arauaren 64. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Altxortegiko egoerari eta mugimenduei buruzko informazioa emango zaio Udalbatzarrari.

Urtero, urteko kontuen dokumentu osagarri modura, ekitaldiaren bukaeran Kutxan dauden izakinen Kontaketa Akta erantsi beharko da, diruzainak, kontu-hartzaileak eta alkateak baliozkotzat emanda.

Aurrekontu barruko zein aurrekontuz kanpoko fondoan sarrerak egiteko, nahitaezkoa izango da kontu-hartzailearen kontabilitate-agiria, eta baita ere, kontu-hartzaileak agiri horren "berri jaso izana".

29. artikulua.-Altxortegiko plana eta soberakinak

Udal Diruzaintzari dagokio Altxortegiko planak eta programak prestatzea, erakundeak erabilgarri daukan dirua denboran zehar banatuta, unean uneko betebeharrak betetzeko, betiere, legez ezarritako lehentasunen arabera eta Udalbatzarrak adierazitako jarraibideekin bat etorrita. Diruzaintzako Plana eta Fondoak erabiltzeko Plana nabarmendu behar dira.

Ahalik eta etekinik handiena lortzeko irizpidearekin kudeatuko dira diru-baliabide likidoak. Hala ere, beti bermaturik egongo da obligazioen epemugak betetzea.

Altxortegiko soberakinak badaude, diruzainak kontsultatutako finantza-erakundeen artean udal intereserako eskaintzarik egokiena lortu, eta dagokion proposamena aurkeztu beharko dio Alkatetzari, horrek soberakina non jarri baimen dezan, baina beti kontuan izanda abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 56.2 artikuluan adierazitako baldintzak bete behar direla. Horretarako honakoak bete beharko dira:

- Konfiantza nahikoa ematen duen erakunde jaulkitzaile batek babestutako produktuak izan daitezela.
- Produktu kaudimendunak eta segurtasun handikoak izan daitezela; hau da, ez daitezela produktu espekulatzaile arriskutsuak izan.
- Berehalako likidezia egon dadila, presazko ordainketak egiteko.

Aurrekontua gauzatzean lortzen diren etekinak erabiliko dira obligazio guztiak betetzeko. Xede jakin baterako diru-sarrera bereziak eta aurrekontuz kanpokoak arautzeko, kutxa bakarraren printzipioa erabiliko da; hala, gastuen aurrekontua gauzatzean ez da baliabideen xedea bereiziko. Diru-sarreraren xedea likidazioan agertuko da.

30. artikulua.- Diru-sarreraren kudeaketa-faseak

Diru-sarrerak gehienez ere honako fase hauetan kudeatuko dira:

- a) Dirua sartzeko konpromisoa
- b) Eskubideak aitortzea
- c) Aitortutako eskubideak kobratzea

31. artikulua.- Dirua sartzeko konpromisoa

Ekintza honetan, Udalarekin egindako akordio edo hitzarmen bitartez, edozein erakunde edo pertsona publiko zein pribatuk bere burua behartzen du gastu jakin bat osorik edo zatika ordaintzera Udalari.

32. artikulua.- Eskubideak aitortzea

Ekintza honen bitartez, Udalaren aldeko eskubide bat sortzen da, diru-sarrera bakoitzaren arau bereziekin bat etorritz.

Errolda fiskalaren bidez kudeatzen diren diru-sarreretan, errolda behin betiko onartu eta Zerga-bilketa Departamentura kobratzeko bidaltzen den unetik aurrera kontabilizatuko da eskubide- aitortpena.

Gainerako zerga, prezio publiko eta bestelako sarreretan, Zerga-bilketa Departamentura kobratzeko bidaltzen den unetik kontabilizatuko da eskubide-aitortpena.

Autolikidazioetan eta aurreko zorpetzerik gabeko bestelako diru-sarreretan, zenbatekoaren sarrera kontabilizatzen den unean aitortuko da eskubidea.

Diru-laguntzetan eta transferentzietan, xedatutako baldintza guztiak bete ondoren, diru-laguntza eta transferentziak galdagarriak direnean aitortuko da eskubidea.

33. artikulua.- Aitortutako eskubideak kobratzea

Ekintza honen bitartez, lehendik edo aldi berean aitortutako eskubidea ordaintzen da, zenbatekoa Diruzaintzan sartuta.

Udal baliabideen sarrera honakoekin bat etorritz egingo da: ordenantza fiskalak, prezio publikoen ordenantza, Zerga Bilketako Ordenantza Nagusia, indarrean dauden lege xedapenak eta Udalak hartutako erabakiak.

Aldizka kobratu beharreko zerga eta prezio publikoen egutegia urtero argitaratzen dena izango da.

Oinarriak edo tipoak oro har igotzea erabaki izanaren ondorioz zergak igotzen badira, ez zaie erroldako guztiei horren berri eman beharko banan-banan.

Zergak biltzeko ordezkariak:

1. Banakoek aparkaldi mugatuko zona modura seinaleztatutako jabari publikoa erabiltzeagatik, tasaren autolikidazioaren kobrantza enpresa kudeatzailearen esku utzi da.
2. Ur-hornidura eta zabor-bilketa zerbitzuak emateagatik, tasen kobrantza Ur Zerbitzuak enpresaren esku utzi da.

Diruzaintza arduratuko da diru-bilketaz, eta berak egiaztatu beharko du indarrean dauden zerga-bilketako arauak betetzen diren.

Aurrekontuko kontzeptu jakin baterako Diru-sarrera Aginduaren bidez formalizatuko dira Udalak edo erakundeek jaso beharreko diru-sarrerak. Agiri hori Kontu-hartzaileak egingo du. Horretarako Udal Diruzaintzak aurrez F.I (Forma de Ingreso) agiria egingo du. Horrela jakingo du Kontu-hartzaileak fondoak sartu direla.

Edozein arrazoi dela-eta, diru-sarrerak ezin badira aurrekontuko bere kontzeptuan kontabilizatu, aplikatu gabeko diru-sarrera gisa kontabilizatuko dira, eta kutxa bakarrean sartuko dira, ondorio guztietarako.

Departamentuek diru-laguntzak emateari buruzko informaziorik badute, Udal Kontu-hartzailezari horren berri emango diote, unean uneko jarraipena egin dezan. Diru-laguntzen justifikazioa departamentuek egin beharko dute, eta Kontu-hartzailezari jakinaraziko dizkiote bidalitako frogagiriak.

Diruzaintzak kontrolatuko du ordaindutako diru-sarrerarik egon ez dadin, formalizazio kontablea egiteko daukaten banku-kontuetan; salbuespen izango dira zerga-bilketako kontu mugatuak.

34. artikulua.- Kreditu eragiketak

1. Maileguak

Administrazio Publikoko Kontratuen Legeak ez ditu kreditu eragiketak arautzen, beraz, prestaketa eta esleipen prozedurek honako izapideak bete beharko dituzte:

- Eskaintzak gutxienez 5 finantza-erakunderi eskatuko zaizkie.

- Ogasuneko batzordeak proposamena bidaliko dio udal organo eskudunari, aurrez Diruzaintzak eta Kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren.

2. Diruzaintzako eragiketak eta epe laburreko maileguak

Maileguetarako adierazitako irizpide berdinak ezarriko dira, epearena izan ezik, gehienez urtebetekoa izango da eta.

35. artikulua.- Berandutzako interesak

Berandutzako interesak aplikatu eta likidatzeko aldiaren hasiera Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Arau Orokorrak arautuko du.

Orokorrean, berandutzako interesa hau izango da: diruaren legezko interesa gehi %25, baldin foru araturen batek bestela xedatzen ez badu.

Zor nagusia ordaintzearekin batera kalkulatu eta ordainduko dira interesak. Enbargatutako ondasunak edo bermeak gauzatu nahi izanez gero, eskubidea kitatu ondoren lortzen den likidoa aplikatzean egingo da interesen likidazioa. Dirua edo kontu-korronteak enbargatuta badaude, enbargoa egiten den unean kalkulatu eta atxikiko dira interesak.

IV. TITULUA. AURREKONTUA LIKIDATZEA

36. artikulua.- Gastuen egoerako aurretiko eragiketak

Ekitaldia amaitutakoan egiaztatu beharko da obligazio-onarpena sortzen duten udal erabaki guztiak kontabilitateko "O" fasean jasota daudela.

Diru-laguntzak jasotzeko baldintza batzuk bete behar badira, "O" fasean kontabilizatu beharko dira, eta ez da dirurik jasoko baldintza horiek guztiak bete arte.

Abenduaren 31 artean egindako erosketa, obra, zerbitzu edo gastuen ondoriozko obligazio onartuak ekitaldiari egotziko zaizkio, baldin hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen onartzen badira.

Aurrekontu-ekitaldiko azken egunean obligazio onartuak betetzearen mende ez dauden kredituak baliogabetu egingo dira; salbuespen bakarrak araudi honetako 12. artikuluan jasotakoak izango dira.

37. artikulua.- Sarreraren egoerako aurretiko eragiketak

Abenduaren 31 arte aitortutako eskubide guztiak likidatu beharreko aurrekontuan aplikatu behar dira.

Aurreko ekitaldian likidatutako eskubideak baliogabetzea

Aurreko ekitaldian likidatutako eskubideak baliogabetzeko ondoko prozedura jarraituko da:

Zerga likidazioak eta prezio publikoak baliogabetzea: toki entitateko udalburuak onartuko ditu, Errenta eta Ordainarazpenetako edo Diruzaintzako Departamentuek proposatu ondoren.

Espediente kobraezinak: toki entitateko udalburuak onartuko ditu, Diru-bilketako Departamentuak proposatuta eta Kontu-hartzailetzak eta Diruzaintzak txostenak eginda.

Gainerako eskubideak: eskubidea baliogabetzeko proposamena dagokion departamentuak egingo du, eta bere inguruko txostena egingo du Kontu-hartzailetzak. Ondoren, toki entitateko udalburuak edo, hala badagokio, Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko du.

38. artikulua.- Ekitaldia likidatzea

Ekitaldia abenduaren 31ko ondorio-datarekin itxi eta likidatuko da.

Likidazioaren egoera-erakusleak hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen egin behar dira.

Alkateak onartuko du likidazioa, eta Udalbatzarrari jakinarazi beharko zaio egiten den lehen bilkuran.

39. artikulua.- Kontu-ikuskaritza

Aurrekontuaren araudian aurreikusitakoaren babespean, artikulua honetan jasotako arloetarako bakarrik, alde aurretiko fiskalizazioa onartu eta ezartzen da. Nolanahi ere, "a posteriori", beharrezkoa izango da fiskalizazio osoa egitea, obligazio

edo gastu mugatuak dituen fiskalizazioa sortu zuten egintzen, agirien edo espedienteen lagin adierazgarria kontuan hartuta.

Oro har, gastuen atalean sortu diren egintza ekonomiko guztien aurretiazko fiskalizazioa eta kontu-ikuskaritza egiteko, aski izango da ondoko oinarritzko baldintzak frogatzea eta egiaztatzea:

- a) Aurrekontu-kreditu lotua egotea, eta proposatutako kreditua egokia izatea. Horiek horrela, aurrekontua egokitzat joko da, baldin eta Udalaren Diruzaintzaren kontura burutu behar diren obligazioak finantzatzen baditu, edo sortuta egon eta preskribatuta ez dauden obligazioak finantzatzen baditu.
- b) Obligazioak edo gastuak organo eskudunak sortutakoak izatea.
- c) Gastuak finantzatzeko baliabideak benetan edukitzea.
- d) Obligazioak edo gastuak aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.
- e) Obligazioaren edo gastuaren euskarri diren agiriak zuzenak izatea, eta horiek beharrezkoak diren sinadurak eta baldintzak edukitzea. Horiek horrela, gastuaren obligazioa onartzeko dokumentuak arduradunaren sinadura eta identifikazioa izan beharko ditu. Berak egiaztatuko du zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua behar bezala eginda daudela.
- f) Konpromiso-kredituen eta urte anitzeko gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauak ezarritako mugak eta baldintzak betetzea.
- g) Obligazioa edo gastua esleitu zaioneko aurrekontu-partidak behin-behinekotasunaren arauak betetzea, baita gastuen programako izaerari eta izaera ekonomikoari, eta hala badagokio, izaera organikoari buruzko berezitasunak eta zehaztapenak ere.
- h) Kudeaketa-prozesuaren baitan duten garrantzia tarteko, Udalbatzarraren osoko bilkurak ezartzen dituen gainerako alderdiak.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. INFORMAZIOA

Udal taldeek noiznahi eskura dezakete jatorrizko Aurrekontu-balantzearen kopia. Balantze horri buruzko txostena egin ahalko da, eta Udalbatzarrari jakinaraziko zaio.

AZKEN XEDAPENA

LEHENENGOA: Arau honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, oro har, honakoa izango da kontuan: Tokiko esparruan indarrean dagoen araudia; abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzkoa; abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena; abenduaren 16ko 44/2014 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egitura partzialki aldatzen duena; kontu-hartzaileak dagokion txostena egin ondoren, Udalbatzarrak ebazten duena.

BIGARRENA: Alkateari ahalmena ematen zaio, honako arau hau garatze eta argitze aldera, behar beste ebazpen emateko.

Une honetan, gaueko bederatziak eta bost direnean, batzarburu jaunak bilkura eten egin du, atsedeen txiki bat egiteko; eta, ordu laurden batera, bederatziak eta hogeian, berriro ekin diote bilkurari.

2.- 2017. URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA. HASIERAKO ONESPENA

2015 I 399 0072 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, batzarburuak horrela aginduta, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2017. ekitaldirako Zarauzko Udalaren eta Zarautz-Lur SA udal sozietatearen PLANTILLA ORGANIKOAK eta LANPOSTUEN ZERRENDAK aurkeztu ditu Giza Baliabideetako Departamentuak.

Espedientean dagoen dokumentazioa ikusi ondoren eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea Zarauzko Udalaren eta Zarautz-Lur SA udal sozietatearen PLANTILLA ORGANIKOEI, 2017. urterako.

Bigarrena.- Hasierako onespena ematea Zarauzko Udalaren eta Zarautz-Lur SA udal sozietatearen LANPOSTUEN ZERRENDEI, 2017. urterako.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak ebazteko.

Laugarrena.- Aurrekoa bete ostean, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuak (toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak) 127. artikuluan, bai uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak) 16. artikuluan xedatzen dutenaren arabera.

PLANTILLA ORGANICA 2016

AYUNTAMIENTO

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO PLAZAK						
GAIKUNTZA NAZIONALEKO ESKALA						
Kodea	Izena	Zenbat	Taldea	Beteta	Hutsak	Oharrak
IDAZKARITZAKO ASPIESKALA						
1.1.1	IDAZKARI NAGUSIA	1	A1	1	0	
KONTU-HARTZAILETZA / DIRUZAINZA AZPIESKALA						
1.1.2	KONTU-HARTZAILEA	1	A1	0	1	
1.1.3	DIRUZAINA	1	A1	0	1	

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA						
Kodea	Izena	Zenbat	Taldea	Beteta	Hutsak	Oharrak
TEKNIKARIEN ASPIESKALA						
1.1.4	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA	4	A1	2	2	
ADMINISTRARIEN AZPIESKALA						
1.1.5	ADMINISTRARIA	40	C1	26	14	
MENPEKOEN AZPIESKALA						
1.1.8	TELEFONISTA INFORMATZAILEA	1	C2	1	0	Enplegu plana (Hurtzaindegia)
1.1.55	MANDATARI JAKINARAZLEA	1	C2	1	0	
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA						
Kodea	Izena	Zenbat	Taldea	Beteta	Hutsak	Oharrak
TEKNIKARIEN AZPIESKALA						
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEA						
1.1.9	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (INGENIARIA/ ARKITEKTOA)	2	A1	1	1	
1.1.10	PSIKOLOGOA	1	A1	1	0	Enplegu plana (Hurtzaindegia)
1.1.11	FILOLOGOA	1	A1	1	0	
1.1.42	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (Gizarte Zerbitzuetako arduraduna)	1	A1	0	1	
1.1.62	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (BIBLIOTEKONOMIA)	1	A1	0	1	
1.1.63	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (KIROLETAKO ARDURADUNA)	1	A1	1	0	
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEA						
1.1.12	ERDI MAILAKO TEKNIKARIA	14	A2	6	8	
1.1.13	GIZARTE LAGUNTZAILEA	6	A2	5	1	
TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN KLASEA						
1.1.14	DELINEATZAILEA	2	C1	2	0	
ZERBITZU BEREZIETAKO TEKNIKARIEN AZPIESKALA						
ZEREGIN BEREZIETAKO KLASEA						
1.1.18	EKONOMIAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	1	0	
1.1.19	EUSKALTEGIKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	6	A2	4	2	
1.1.20	HAURTZAINDEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	5	A2	5	0	Enplegu plana (Hurtzaindegia)
1.1.22	ZERGA-BILTZAILE/ AGENTE EXEKUTIBOA	1	C1	1	0	
1.1.23	ITZULTZAILEA	3	C1	1	2	
1.1.24	INFORMATIKAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.26	ERAKUSKETETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	1	0	"Barne-sustapen" prozesua egin ondoren desagertzekoa
1.1.29	OROKIETAKO ETXEZAINA	1	E	0	1	
1.1.44	ERRENTA ETA ORDAINARAZPENETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	A2	1	0	
1.1.45	KULTURAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	A2	1	0	
1.1.46	LIBURUTEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	4	C1	3	1	
1.1.47	INFORMATIKAKO LAGUNTZAILEA	1	C2	1	0	
1.1.56	KIROLETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	2	C1	2	0	
1.1.57	MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	1	C1	0	1	
UDALTZAINGOKO KLASEA						
1.1.15	OFIZIALORDEA	1	C1	1	0	
1.1.16	LEHEN-MAILAKO UDALTZAINA	6	C1	6	0	
1.1.17	UDALTZAINA	36	C1	19	17	
OFIZIOETAKO LANGILEEN KLASEA						
1.1.30	PROIEKTUETAKO ARDURADUN KOORDINATZAILEA	1	C1	1	0	
1.1.34	ERAIKUNTZETAKO ZAINTEZAILEA	1	C1	0	1	

1.1.38	OFIZIAL LOREZAINA	1	C2	1	0	"Barne-sustapen" prozesua egin ondoren desagertzekoa
1.1.40	OFIZIAL BILTEGIZAINA	1	E	1	0	
1.1.49	BRIGADAKO ARDURADUNA	1	C1	0	1	
1.1.50	OFIZIAL IGELTSEROA	3	C1	3	0	
1.1.51	OFIZIAL ARGIKETARIA	2	C1	2	0	
1.1.52	OFIZIAL ITURGINA	2	C1	2	0	
1.1.53	OFIZIAL LOREZAINA	1	C1	0	1	
1.1.54	BIGARREN MAILAKO OFIZIALA	5	C2	1	4	
1.1.58	MUNTATZE-LANETAKO ARDURADUNA	1	C1	1	0	
1.1.59	MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTAILEA	4	C2	4	0	
1.1.60	HARRERAGILEA	1	C2	1	0	
1.1.61	ZEREGIN ANITZEKO OFIZIALA (gidaria)	1	C1	0	1	

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO PLAZAK						
Kodea	Izena	Zenbat	Taldea	Beteta	Hutsak	Oharrak
1.2.2	ALKATEAREN IDAZKARIA	1	C1	1	0	
1.2.5	TALDE POLITIKOKO IDAZKARIA	2	C2	2	0	% 100% / % 69,03
1.2.6	KOMUNIKAZIO ETA PROTOKOLO ARDURADUNA	1	A1	1	0	

ZARAUZ-LUR

LAN-LEGEPEKOAK						
Kodea	Izena	Zenbat	Taldea	Beteta	Hutsak	Oharrak
1.7.2	ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA	1	A1	0	1	
1.7.4	ADMINISTRARIA	1	C1	0	1	

2017ko LANPOSTUEN ZERRENDA

ZARAUZKO UDALA

FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.1	Idazkari nagusia	1	B	N	A1	29	34.242,04	00	580	Gaikuntza nazionala	4	1994/12/31	1	% 15
1.1.9	Ebazpen organoetako administraria	1	E	L	C1	20	16.368,10	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.15	Jakinarezlea	1	E	L	C2	16	12.711,44	14	200		2	1990/12/31	1	1
1.1.4	Zerbitzu juridikoetako AOT (Kontratazioa)	1	E	L	A1	23	20.346,76	11	570		4	2007/02/14	1	1
1.1.13	Zerbitzu juridikoetako administraria (Kontratazioa)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.180	Zerbitzu juridikoetako AOT (ondarea,,ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena)	1	E	L	A1	23	20.346,76	11	570		4	2008/01/25	1	1
1.1.186	Zerbitzu juridikoetako administraria (Ondarea, ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena) (%50)	1	E		C1	19	15.448,02	12	300		3	2016-12-29	1	1
1.1.161	Itzulpenetako koordinatzailea	1	E	L	C1/A2	20	14.675,92	22	300		4(TP)		1	1
1.1.6	Itzultzailea	2	E	L	C1/A2	20	12.989,20	22	300		4(TP)		1	1
1.1.8	Estatistika eta Erroldako koordinatzailea	1	E	L	C1	20	16.368,10	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.11	Estatistika eta Erroldako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.10	Erregistroko administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2003/01/30	1	1

DEPARTAMENTUA: ZERBITZU EKONOMIKOAK/KONTU-HARTZAILTZA (0301)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.16	Kontu-hartzailea	1	B	N	A1	28	34.180,58	01	550	Gaikuntza nazionala (##)	4	1990/12/31	1	% 15

1.1.17	Kontabilitate eta Aurrekontuetako teknikaria	1	E	L	A2	21	17.502,66	22	400		3	2001/12/26	1	1
1.1.19	Kontabilitate eta Aurrekontuetako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.23	Kontu-hartzaitzako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.18	Errentetako teknikaria	1	E	L	A2	21	17.502,66	22	400		3	1995/03/09	1	1
1.1.20	Errentetako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.129	Errentetako administraria	2	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: ZERBITZU EKONOMIKOAK /DIRUZAINZA (0302)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	D O	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.24	Diruzaina	1	B	N	A1	26	22.348,20	01	550	Gaikuntza nazionala	4	1994/12/31	1	1
1.1.26	Diruzaintzako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.25	Zerga-biltzailea	1	E	L	A2/C1	20	20.020,28	22	300		3	2014/12/17	1	% 15
1.1.27	Zerga-bilketako administraria (1 zk.)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.28	Zerga-bilketako administraria (2 zk.)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	D O	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.29	Bulego Teknikoko arduraduna	1	B	I	A1	25	28.254,80	21	500		4	1994/12/31	1	% 5
1.1.159	Eraikuntzetako teknikaria	1	E	L	A2/A1	21	17.067,68	22	493/500		3	2009/03/03	1	1
1.1.33	Urbanizazioetako teknikaria	1	E	L	C1/A2	21	19.189,80	22	300/493		3	2013/12/18	1	1
1.1.34	Zerbitzuetako teknikaria	1	E	L	A2/A1	21	17.067,68	22	400/500		3	2013/12/18	1	1
1.1.130	Delineatzailea	2	E	L	C1	19	15.448,02	21	325		2	1999/01/01	1	1
1.1.35	Bulego Teknikoko administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2007/12/31	1	1
1.1.30	Mantentze-lanetako arduraduna	1	E	L	A2/A1	23	18.677,82	22	493/500		3	1995/03/09	1	1
1.1.142	Mantentze-lanetako eta Brigadako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.38	Brigadako enkargatua	1	B	L	C1	20	18.054,68	22	300		3	2014/12/17	1	1
1.1.131	Ofizial elektrikaria	2	E	L	C1	19	21.453,46	22	326 + CF		1	1990/12/31 2001/12/26	1 1	% 18,43
1.1.132	Ofizial iturgina	2	E	L	C1	19	21.453,46	22	300 + CF		1	1990/12/31 1999/05/01	1	% 18,43
1.1.133	Ofizial igeltseroa	3	E	L	C1	19	15.448,02	22	300		1	2013/12/18 1999/05/01 2008/07/30	1	1
1.1.48	Zeregin anitzeko ofiziala-gidaria	1	E	L	C1	18	12.927,32	22	300		1	2013/12/18	1	1
1.1.165	2.mailako ofizial elektrikaria	1	E	L	C2	17	13.823,04	22	200		1	2001/12/26	1	1

1.1.166	2.mailako ofizial iturgina	1	E	L	C2	17	13.823,04	22	200		1	2001/12/26	1	1
1.1.167	2.mailako ofizial igeltseroa	3	E	L	C2	17	13.823,04	22	200		1	2001/12/26	1	1
1.1.45	Lorategietako arduraduna	1	E	L	C1	19	15.448,02	22	300 + CF		1	1990/12/31	1	1

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	D O	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.63	Gizarte Zerbitzuetako arduraduna	1	B	I	A1	23	20.858,46	21	517		4	2009/03/03	1	% 5
1.1.135	Oinarrizko gizarte langilea	4	E	L	A2	20	16.362,64	21	432		3	1993/12/31 2001/12/26 2005/12/26 2008/01/25	1	1
1.1.168	Programa berezietako gizarte langilea	1	E	L	A2	20	16.362,62	21	432		3	1993/12/31 2001/12/26	1	1
1.1.156	Gizarte Zerbitzuetako administraria	2	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2009/03/03	1	1
1.1.136	Gizarte Zerbitzuetako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2003/01/30	1	1
1.1.136	Gizarte Zerbitzuen koordinaziorako administraria (% 50)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2007/02/14	1	1
1.1.151	Ekintza soziokomunitarioko teknikaria	1	E	L	A2	20	16.362,64	21	400		4	2008/01/25	1	1
1.1.185	Koordinaziorako gizarte langilea	1	E	L	A2	20	16.362,64	21	432		4	2017/12/17	1	1

DEPARTAMENTUA: KULTURA - KULTURA ZERBITZUAK (06)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	D O	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.73	Kulturako arduraduna	1	B	I	A2/A1	22	23.956,10	22	400/500		4	1994/12/31	2	% 15
1.1.76	Kultur dinamizatzailea	1	E	L	C1/A2	20	18.227,72	12	300/400		3	2007/02/14	2	% 5
1.1.74	Kultur ondarearen, artearen eta museoen kudeatzailea (*)	1	E	L	A2/C1	20	18.049,22	22	400/300		3	1990/08/31	2	1
1.1.80	Kulturako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2003/01/30	2	1

(*) Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat

DEPARTAMENTUA: KULTURA. - UDAL LIBURUTEGIA (06)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	D O	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISPN.
1.1.75	Liburutegiko arduraduna	1	B	L	A1	22	16.412,06	22	516		4	2014/12/17	2	1
1.1.137	Liburutegiko teknikari laguntzailea	4	E	L	C1	19	15.448,02	22	300		3	1990/12/31 1991/12/31 2001/12/26 2011/03/18	3	1

DEPARTAMENTUA: EUSKARA (07.01)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED
1.1.81	Euskarako arduraduna	1	B	I	A1	22	16.412,06	21	515		4(TP)		1	1
1.1.144	Hizkuntza normalizatzailea	1	E	L	A2	20	12.989,20	21	400		4(TP)		1	1
1.1.82	Euskarako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2001/12/26	1	1

DEPARTAMENTUA: EUSKALTEGIA (07.02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED
1.1.83	Euskaltegiko zuzendaria	1	B	I	A2	22	18.534,18	22	400		4(TP)		1	1
1.1.138	Euskaltegiko irakaslea	4	E	L	A2	20	14.675,92	22	400		4(TP)		2	1
1.1.87	Euskaltegiko administraria (% 50)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	1990/08/31	2	1

DEPARTAMENTUA: HEZKUNTZA (08)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.154	Hezkuntzako arduraduna	1	E	L	A2/A1	21	15.380,54	21	400/500		4	2008/01/25	1	1
1.1.143	Hezkuntzako administraria (% 50)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	1990/08/31	1	1
1.1.139	Eskola instalazioetako zaintzailea	1	E	L	AP	15	13.812,12	22	100		1	1990/12/31	2	1

DEPARTAMENTUA: UDALTZAINGOA (09)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.184	Herritarren segurtasuneko ofizial arduraduna	1	B	I(*)	C1	22	38.376,24		300		3	2011/03/18	1	%10
1.1.91	Udaltzaingoko ofizialordea	1	B	I	C1	22	21.912,90	22	300		4	2007/12/31	1	1
1.1.140	Lehen mailako udaltzaina (*)	1	E				24.367,70						3	
		2	B				24.367,70						3	
		3	B	L	C1	20	24.367,70	22	300		3	2017/12/17	3	1
		4	E				24.367,70						3	
		5	E				24.367,70						3	
1.1.187	Atestatuen koordinaziorako lehen mailako udaltzaina (*)	1	B	L	C1	20	23.115,12	22	300		3	2017/12/17	2	1
1.1.141	Udaltzaina (**)	1	E				18.929,26					1990/12/31	3	
		2	E				18.929,26					1990/12/31	3	
		3	E	L	C1	18	18.929,26	22	300	(***)	2	1990/12/31	3	1
		4	E				18.929,26					1990/12/31	3	

		5	E				18.929,26				1990/12/31	3		
		6	E				18.929,26				1990/12/31	3		
		7	E				18.929,26				1990/12/31	3		
		8	E				18.929,26				1990/12/31	3		
		9	E				18.929,26				1991/12/31	3		
		10	E				18.929,26				1993/12/31	3		
		11	E				18.929,26				1994/12/31	3		
		12	E				18.929,26				2001/12/26	3		
		13	E				18.929,26				2001/12/26	3		
		14	E				18.929,26				1999/05/01	3		
		15	E				18.929,26				1999/05/01	3		
		16	E				18.929,26				1999/05/01	3		
		17	E				18.929,26				1999/05/01	3		
		18	E				18.929,26				1999/05/01	3		
		19	E				18.929,26				1999/05/01	3		
		20	E				18.929,26				2000/01/01	3		
		21	E				18.929,26				2000/01/01	3		
		22	E				18.929,26				2001/12/26	3		
		23	E				18.929,26				2001/12/26	3		
		24	E				18.929,26				2004/12/29	3		
		25	E				18.929,26				2004/12/29	3		
		26	E				18.929,26				2004/12/29	3		
		27	E				18.929,26				2004/12/29	3		
		28	E				18.929,26				2008/01/25	3		
		29	E				18.929,26				2008/01/25	3		
		30	E				18.929,26				2008/01/25	3		
1.1.188	Bide-heziketako udaltzaina (*)	2	B	L	C1	18	15.885,10	22	300		3	2017/12/17	1 / 3	1
1.1.189	Mantentze-lanetako udaltzaina (*)	2	B	L	C1	18	14.406,00	22	300		2	2017/12/17	1	1
1.1.190	Udaltzain administraria	1	B	L	C1	19	15.448,02	22	300		3	2016/12/29	1	1
1.1.98	Udaltzaingoko administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.99	Isunetako eta sarbideen kontroleko administraria	2	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1

L (*) Beste administrazioetara irekitako lanpostua

(**) Hamar "Udaltzain" lanpostu amortizatu egin beharko dira, "Atestatuetakako udaltzaina" lanpostuak betetzen direnean, Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an onartu zuen trantsizio-aldiarekin bat etorrita.

(***) "Udaltzain" plazetan B+E baimera eskatuko da.

1.1.99	Atestatuetakako udaltzaina (*)	10	E	L	C1	18	18.929,26	22	300		3	2017/12/17	3	1
--------	--------------------------------	----	---	---	----	----	-----------	----	-----	--	---	------------	---	---

DEPARTAMENTUA: GAZTERIA (10)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.155	Gazteriako arduraduna	1	E	L	A2/A1	21	15.380,54	21	400/500		4	2004/10/27	1	1
1.1.153	Gazteriako administraria (%50)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2008/01/25	1	1

DEPARTAMENTUA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA (11)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.54	Hirigintza eta Ingurumeneko arduraduna	1	B	I	A1	25	33.450,62	11	570		4	1990/08/31	1	%15
1.1.55	Arkitektoa	1	E	L	A1	24	21.306,18	21	549		4	2004/12/29	1	1
1.1.57 1.1.150	Arkitekto teknikoa	2	E	L	A2	21	19.189,80	21	493		3	1990/12/31 2008/01/25	1	1 1
1.1.56	Ingurumeneko teknikaria	1	E	L	A2	21	17.502,66	21	400		4	2013/12/18	1	1
1.1.59 1.1.61	Hirigintza eta Ingurumeneko administraria	3	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2004/12/29 2013/12/18 2013/12/18	1	1
1.1.62	Obra eta jardueren zaintzailea	1	E	L	C1	19	15.448,02	22	327		2	1995/03/09	1	1

DEPARTAMENTUA: PARTAIDETZA ETA AGENDA 21 (12)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.160	Partaidetza eta Agenda 21eko arduraduna	1	E	L	A2/A1	21	17.330,74	21	400/500		4	2014/12/17	1 / 2	% 5

DEPARTAMENTUA: PAREKIDETASUNA (13)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.152	Parekidetasuneko arduraduna	1	E	L	A2/A1	21	19.280,80	21	400/500		4	2005/12/26	1	% 10
1.1.162	Parekidetasuneko administraria (% 50)	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2007/02/14	1	1

DEPARTAMENTUA: KIROLA (14)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.N.
1.1.174	Kiroletako arduraduna	1	B	I(*)	A1	23	22.610,70	21	595		4	2007/12/31	2	% 5
1.1.175	Kiroletako teknikari laguntzailea	1	E	L	C1	20	16.368,10	22	300		3	2007/12/31	1	1
1.1.176	Kirol instalazioetako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	22	300		3	2013/12/18	1	1
1.1.177	Kiroletako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2003/01/30	1	1

1.1.178	Kirol instalazioen mantentze-lanetako arduraduna	1	E	L	C1	20	20.826,82	22	300		2	2003/01/30	1 / 2	% 7,78
1.1.179	Kirol instalazioen mantentze-lanetako 2.mailako ofiziala	4	E	L	C2	17	18.917,22	22	200		1	1993/12/31 1993/07/22 2007/02/14 2008/01/25	1 / 2	% 7,78

L (*) Euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioei irekita

DEPARTAMENTUA: TURISMOA, EKITALDIAK ETA JAIK (15)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.171	Turismoko arduraduna	1	B	I	A2/A1	22	26.053,30	21	400/500	Frantsesa-ingelesa	4	2007/12/31	2	% 20
1.1.172	Turismoko teknikari laguntzailea	3	E	L	C1	19	16.805,60 20.199,90 16.805,60	12	300	Frantsesa-ingelesa	3	2001/12/26 1993/06/30 1993/06/30	2	1 % 10 1
1.1.173	Muntatze-lanetako arduraduna	1	E	L	C1	19	21.965,02	22	300		2	2013/12/18	2	% 20
1.1.183	Ekitaldi eta jaietako koordinatzailea	1	N	C	A2	21	27.327,86	22	400		3	2014/12/17	2	% 20

DEPARTAMENTUA: HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (16)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.169	Herritarren Arreta Zerbitzuko arduraduna	1	B	I	A1	23	15.755,88	21	536		4	2014/11/26	1 / 2	1
1.1.170	Herritarren Arreta Zerbitzuko agentea - informatzailea (*)	5	E	L(*)	C1/C2	19	15.448,02	12 14	300/200		3	2014/11/26	1 / 2	1
1.1.191	Informazioa kudeatzeko teknikari laguntzailea	1	B		C1	19	15.448,02		300		3		1	1

(*) Soil-soilik Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioentzat eta "Zarauzko Kirol Patronatua" eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat.

DEPARTAMENTUA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (17)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.5	Informazio eta Komunikazio Teknologietako teknikari laguntzailea	1	B	L	C1	20	19.008,78	22	300		3	2003/01/30	1 / 2	% 7.78
1.1.12	Informazio eta Komunikazio Teknologietako laguntzailea	1	E	L	C2	18	16.940,14	22	200		3	2003/01/30	1 / 2	% 7.78

DEPARTAMENTUA: GIZA BALIABIDEAK (18)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.2	Giza Baliabideetako arduraduna	1	E	L	A1	25	27.180,06	11	570		4	2003/01/30	1	% 10
1.1.163	Nominen kudeatzailea	1	E	L	C1	20	18.054,68	12	300		3	2012/12/31	1	1
1.1.3	Giza Baliabideetako administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2007/12/31	1	1

DEPARTAMENTUA: DOKUMENTAZIOA (19)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.1.7	Dokumentazioko administraria	1	E	L	C1	19	15.448,02	12	300		3	2001/12/26	1	1

Baldintza bereziak: ZARAUZKO UDALEKO LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUAN adierazitakoak; Udalbatzarrak 2014ko irailaren 24an egindako bilkuran eman zion hasierako onespena eskuliburu horri, eta 2015eko otsailaren 25ean onartu zuen behin betiko.

Gaikuntza nazionala (##)

MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK, IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZA DUTEN TOKI ADMINISTRAZIOETAKO FUNTZIONARIOENTZAT ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK BETETZEKO

1.- Administrazioan eskainitako zerbitzuak (1,30 puntu arte)

- EAEn edota Nafarroako Foru Erkidegoan, Azpieskalaren barnean betetakoak: urte bakoitzeko 0,20 puntu, gehienez 0,60 puntu.
- EAEn edota Nafarroako Foru Erkidegoan, beste Azpieskala batean betetakoak: urte bakoitzeko 0,10 puntu, gehienez 0,60 puntu.
- EAETik edota Nafarroako Foru Erkidegotik kanpora, Azpieskalan betetakoak: urte bakoitzeko 0,02 puntu, gehienez 0,1 puntu

2.- Ikastaroak eta gainerako prestakuntza ekintzak (0,20 arte):

Ikastaro, mintegi, jardunaldi, sinposio edota lanpostuan jarduteko gaitasun handiagoa lortzera bideratutako bestelako prestakuntza eta hobekuntza ekintzak, erakunde ofizialetan emandakoak badira. Puntuazioa: 20 ordu edo gehiagoko ikastaro edo prestakuntza-ekintza bakoitzeko 0,02 puntu, gehienez 0,20 puntu.

BIGARREN JARDUERARAKO GORDETAKO LANPOSTUAK

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZI OA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.3.130	Jakinarazlea	1	E	L	C2	17	12.329,10		200		2	2011/03/18	1	1

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZI OA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.3.1	Ekintza soziokomunitarioko administraria (% 50) Immigrazio eta kultur aniztasuneko administraria (% 50)	1	E	I	C1	19	15.448,02	12	300		3	2013/12/18	1	1

DEPARTAMENTUA: KULTURA.- UDAL LIBURUTEGIA (06)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZI OA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.3.128	Kultur eraikinetako zainzailea	1	E	L	C2	17	12.329,10	22	100		2	2007/02/14	1.2	1

DEPARTAMENTUA: HEZKUNTZA (08)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZI OA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.3.129	Eskola instalazioetako zainzailea	1	E	L	AP	14	14.194,46	22	100		1	2007/02/14	2	1

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZI OA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.2.7	Alkatearen idazkaria	1	S	L	C1	20	13.531,42		300		3		1	1
1.2.9	Komunikazio eta Protokolo arduraduna	1	S	L	A1	24	15.045,52		535		3		1	1
1.2.8	Talde politikoko idazkaria EAJ-PNV (% 100)	1	S	L	C2	17	15.018,22		200		3		1	1
1.2.8	Talde politikoko idazkaria PSE-EE (%69,03)	1	S	L	C2	17	17.976,14		200		3		1	1

ALDI BATERAKO LANPOSTUAK

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.9	Errefortzuko administraria (6 hilabete)	1	E		C1	20	16.368,10		300		3		1	1

DEPARTAMENTUA: ZERBITZU EKONOMIKOAK/KONTU-HARTZAILTZA (0301)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.9	Errefortzuko administraria	1	E		C1	19	15.448,02		300		3		1	1

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.16	Herrilaneke teknikari laguntzailea	1	E		C1	20	16.368,10		300		3		1	1

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.6	Immigrazio eta kultur aniztasuneko teknikaria	1	E		A2	20	18.228,42		400		4	2014/12/17	1	%5
1.4.13	Gizarte langilea (genero-indarkeria)	1	E		A2	20	16.362,64		432		3		1	1

DEPARTAMENTUA: EUSKALTEGIA (07.02)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (% 100)	3	E		A2	20	14.675,92		400		4 (TP)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (% 66,66)	2	E		A2	20	14.675,92		400		4 (TP)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (% 50)	2	E		A2	20	14.675,92		400		4 (TP)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (% 30)	1	E		A2	20	14.675,92		400		4 (TP)		2	1
1.4.3.	Euskaltegiko irakaslea (% 37)	1	E		A2	20	14.675,92		400		4 (TP)		2	1

DEPARTAMENTUA: UDALTAINGOA (09)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.1	Udako udaltzaina (4 hilabete)	12	E		C2	16	14.205,24		200		2		3	1
1.4.4	Bitarteko udaltzainak	3	E		C1	18	18.929,26		300		2		3	1

DEPARTAMENTUA: TURISMOA, EKITALDIAK ETA JAIK (15)

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.4.30	Turismoko laguntzaileak	2	E		C2	17	17.976,14		200	Frantsesa-ingelesa	3		2	1
1.4.31	Animatzaile soziokulturala	1	E	L	C1/A2	19	16.954,84	12	328/400	A2: alor soziokulturalean derrigorrezko ezagutza edota esperientzia	3	2016/12/29	2	%15

“ZARAUZ-LUR SA” UDAL SOZIJATEA

LAN KONTRATUDUN LANGILEENTZAT GORDEAKO LANPOSTUA

KOD.	IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULAZIOA	BALDINTZA BEREZIAK	HE	DER. DATA	LA	DED DISP.
1.11.2	Arduradun juridikoa	1	B	I	A1	24	24.644,25		570		4	2009/02/27	2	2
1.11.3	Administraria (%50)	1	E	L	C1	16	12.497,59		200		3	2014/12/17	2 (50%)	1

3.- ZINEGOTZI BATEN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIAK ALDATZEA

2015 O 020 0002 espedientea

PSE-EE udal taldeak eskatuta, aztergai hau gai-zerrendatik kendu dute.

4.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: POLIOMIELITISAK ERAGINDAKO ETA GAUR EGUN POSTPOLIO SINDROMEAK JASATEN ARI DIREN PERTSONEI BABES-MOZIOA

2016 O 001 0032 espedientea

Segidan, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako eta EH BILDU e IRABAZI ZARAUTZ taldeek ere bere egin duten proposamena irakurri dute. Honela dio:

MOZIOA

EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa, Zarauzko Udaltzarrean kontuan har dadin, Poliomielitisa izan duten eta egun gaixotasunaren ondorio berantiarrek jasaten ari diren pertsonen babes emateko.

ARRAZOIEKIN AZALPENA

Poliomielitisa birus batek sortutako gaixotasun infekziosoa da, bizkarrezur-muinean dauden neurona motorrei erasotzen die, eta paralisia eta atrofia muskularra eragiten ditu. Birus horrek milaka haur erasotu zituen 1950 eta 1964 artean, epidemia handien garaian. Gogoan izan gure herrialdean lehen txerto-kanpaina masiboak ez zirela hasi 1963ko azarora arte, hau da, AEBetan txertoa sortu eta Europan komertzializatzen hasi zenetik zortzi urtera. 1988 arte kasu bakan batzuk azaldu baziren ere, urte horretatik aurrera guztiz ezabatu zen estatuan.

Polioa izan duten pertsonen administrazioen eta oro har gizartearen ahanztura sentitzen dute. Dagoeneko aztertzen ez den eta inork aipatzen ez duen gaixotasuna da. Pertsona hauek ez dute inoiz ezer eskatu –bakarrak lortu zuten aurrera egiten–, lan-bizitzan eta gizartean txertatzen jakin izan dute, ausardiarekin, borondatearekin eta esfortzuekin.

Baina une bat iristen da zeinetan ezin duten aurrera egin, hondatze funtzionalaren eta endekatze prozesuaren poderioz. Orain da erantzunak eta irtenbideak emateko unea. Gehiengoak 50 urte beteta ditu, eta horietako batzuek denbora daramate SPPren sintomak jasaten (polioaren osteko sindromea); hau da, muskulu eta artikulazioetan mina, indarra galtzea, nekea, atrofia muskularra, hotzarekiko tolerantziarik eza eta, kasu batzuetan, irensketa eta arnasketa arazoak (batzuek gauez arnasgailuen edo arnasketa kontrolatzeko makinaren beharra dute). Baina, sindrome horretaz gain, gaur egun pertsona horiek polioaren beste ondorio berantiar batzuk ere jasaten ari dira. Ondorio horiek SPPa bezain desgaitzaileak dira, eta azkenean eguneroko jarduna baldintzatzen dute. Beraz, arreta espezializatu eta bizkorra eskatzen dute.

EPE-Euskadiko Polio Elkarteak eta FEAPET-Federación Española de Asociaciones de Polio y sus Efectos Tardios elkarteak gaixotasun honen inguruan dagoen ezjakintasuna

adierazten dute. Eta salatzen dute ez dagoela arreta integralik eta ez dela jarduera-protokolorik martxan jarri paziente hauek unitate berezietan edo erreferentzialetan diziplina anitzeko ekipoekin tratatzeko. Garrantzitsua da gaixo hauek ospitaleetan hartzeko zirkuitu espezifikoak jartzea, lehen mailako arretatik zuzenean bideratuta.

Bestalde, polioak edo polioaren osteko sindromeak eragindako pertsonak ikusten dute, batetik, administrazioak ez diela aitortzen lanerako ezgaitasuna, eta bestetik, gainera, erretiro aurreratua hartzeko baldintzak zailtzen dizkiela. Horregatik, ondokoa proposatzen zaio Zarauzko Udalbatzarrari:

AKORDIOA:

1.- Zarauzko Udalbatzarrak Estatuko Gobernuari eskatzen dio aitortu eta erreparatu ditzala polioak erasandako pertsonak, 50eko hamarkadan egindako zabarkeriaren ondorioz.

2.- Zarauzko Udalbatzarrak Osasun Ministerioari eskatzen dio bultzatu dezala polioaren osteko sindromearen arretarako estrategia nazional bat (SPP), Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren barruan. Plan horrek, besteak beste, hauek jaso beharko lituzke: SPP gaixotasun kroniko gisa aitortzea eta horrela tratatzea, eta gaixotasun hori tratatu behar duten osasun-profesionalei prestakuntza ematea.

3.- Zarauzko Udalbatzarrak Gizarte Segurantzari eskatzen dio SPPa aintzat hartu eta sindromeak erasandako pertsona bakoitzaren egoera balora dezala, ikusteko ea jasaten dituzten ondorioen larriagotzeak baliaezintasun kalifikazioa izan dezakeen.

4.- Zarauzko Udalbatzarrak Foru Aldundiei eskatzen die SPPren eta haren ondorioen kontzientzia har dezatela, gaixoei behar dituzten laguntza tekniko eta asistentziazkoak eskaintzeko.

5.- Zarauzko Udalbatzarrak Osakidetzari eskatzen dio diagnostikoa egiteko jarraibideak jar ditzala eta SPP duten gaixoei arreta eman diezaiela.

6.- Zarauzko Udalbatzarrak Osakidetzari eskatzen dio osasun-jarduneko gida bat egin dezala SPP duten gaixoenentzat, besteak beste, ondoko puntu hauek kontuak hartuz:

- a) Kodifikazio egoki bat egitea, historia klinikoetatik informazioa atera ahal izateko.
- b) Neurologia eta Errehabilitazioko profesional espezialistek errehabilitazio-tratamendu bakoitza egokitzea, gaixo bakoitzarentzat egutegi berezia jarrita, irizpide klinikoaren arabera, gaixo horien bizi-kalitatea hobetzeko eta gaixotasunaren ondorioak nekezago larriagotzeko.

Udal taldeek beren iritzia eman ostean, proposamena bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	20	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Irabazi-Zarauz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea.

5.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: GURE SEGURTASUN EREDU PROPIO BATEN NORABIDEAN, ESPAINIAKO INDAR POLIZIALEN ERRETIRATZEA GALDEGITEKO MOZIOA

2016 O 001 0033 espedientea

Hurrena, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute, EAJ-PNV taldeak egindako elkarpenak sartuta. Hona hemen testua:

MOZIOA

Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratorik altuena duen herria da. Kalkuluen arabera, lurralde osoan 23.000 efektibo daude, 3.000.000 biztanle dituen eremu batean. Europako erakundeek aholkatzen duten estatistiken arabera, 6.000 polizia efektibo izan beharko lirateke. Honek gainera, kostu ekonomiko izugarria du, 1.500 milioi euro ingurukoa urteko, zuzenean edo kupo moduan euskaldunok ordaintzen duguna.

Bertako polizia indarrez gain, Estatuetakoa indar armatu eta polizialen presentzia izugarria da. Hamarkada luzeetan bizi izan dugun gatazka armatuaren baitan, espainiar zein frantziar indar armatuak herri honetan izan duten presentzia biderkatu egin da. Bost urte luze badira, Aieteko Adierazpenaren baitan gatazka armatua herri honetatik desagertu zenetik. Hala ere, espainiar zein frantziar indarren presentziak bere horretan jarraitzen du. Inolako logikarik gabe burutzen dituzten funtzioak bikoizteaz gainera, egunerokoak dira oraindik hiritarren oinarritzko eskubideak justifikaziorik gabe murrizteko ekimenak: errepideetako kontrolak, identifikazioak, jazarpenak... Euskal Herritarren gehiengoak iragan hori gainditu nahi duen honetan desmilitarizazioaren eremuan urratsak emateko garaia heldu da. Euskal eragile eta instituzioek bat egin behar dute beren jardun politiko eta instituzionalean norabide horretan.

Modu mailakatuan Euskal Herritik Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea beharrezkoa dela uste dugu. Era berean, herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Poliziek betetzea da eman beharreko beste urratsa.

Atalka egin beharreko bide horretan, Estatuko Segurtasun Indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokitu beharko litzateke. Iraganean gertatu diren egoerak ezin dira aitzakia izan, gaur egun gure herrian dagoen indar armatuen dentsitatea mantentzeko. Indarrean dagoen legediaren arabera, eta modu progresiboan Ertzaintzak eta Nafarroako Foruzaingoak beren gain hartu beharko litzukete herritarren babes eta zerbitzu lanak, dagokien mailan herri bakoitzeko Udaltzainekin batera.

Udal honek, Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako 111/2013 legez besteko proposamenarekin bat eginik:

1.- Estatuko Administrazio orokorrari eskatzen dio aurrera eraman dezala bere segurtasun indarrean eta kidegoan moldapena bere eskumenen eremu hertsira, Gernikako Autonomia Estatutuan eta egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarrita dagoen moduan.

2.- Segurtasun sailari eskatzen dio Segurtasun Batzordearen baitan lan egin dezala, Estatuko segurtasun indarren eta kidegoan atzera-egiterako irizpideak ezar ditzan, egiazko segurtasun beharrak eta Gernikako Autonomia Estatutuak emandako eskumenak aintzat harturik.

3.- Udal honek, Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuko Barne Ministerioa biltzen dituen Segurtasun Batzordean Legebiltzarrak onartutako plan hori gauzatzearen beharra aldarrikatzen du.

4.- Udal honek, hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne eta Defentsa Ministerioei eta Espainiako Gobernuaren Presidenteari.

Mozioa hizpide hartuta, eztabaida eta bozketa egin dituzte. Honela geratu da:

Aldeko botoak:	18	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	2	(2 PSE-EE)

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak aurreko mozioa onartzea ERABAKI DU.

6.- EH BILDU ETA IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: ELA SINDIKATUAREN IDATZIA AURKEZTUZ

2016 O 001 0034 espedientea

Azkenik irakurri dute EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek elkarrekin aurkeztutako proposamena, ELA sindikatuaren idatzia bere egitekoa dena, hain zuzen. Hona hemen zer dioen:

ELA SINDIKATUAREN MOZIOA ZARAUZKO UDAL GOBERNU ETA TALDE POLITIKOEI ZUZENDUTA

Zarauzko Udal Erregelamenduaren 25. Artikulua eta Udal honek azpikontrataturako ZARAUZKO BALEA IGERIKETA ETA BPX Sporteko langileek 2016ko uztailean aurkeztutako plataformaren negoziaketa kontutan izanik, MOZIOA aurkezten dut.

GAIA:

Zarauzko kiroldegiko langileen Hitzarmena

AURKEZTEN DU:

Janire Diaz Jauregi
Urola-Kostako zerbitzuak federazioko ELAko arduraduna

EGOERA:

Zarauzko kiroldegiko langileek hilabeteak daramatzate gorabeherekin euren lanpostuetan. 2016ko apirilean piztu zen alarma, Balea Igeriketa enpresako harrerako zerbitzuan murrizketa batzuk etorrira. Udaleko langile batek, azpikontratatua zegoen langilearen postua hartu eta azken hau lanaldi oso txiki batekin gelditu zen.

Hortik ELAko ordezkariak ohartu ginen horren atzetik bazela zerbait sakonagoa. Udalarekin bilera hainbat egin ostean kiroldegiko zerbitzuak "hutsune ekonomikoak" zituela zuzendu ziguten eta zerbitzuaren plegu berriak publikatzean baloratzen ari zirela zein hitzarmen kolektibo izango zen etorkizunean langileek izango zutena. Beste hitz batzuekin esanda, langileen lan baldintzak okerragora egiteko arriskua zegoen mahai gainean, hitzarmen estatala ere aipatu ziguten bileraren batean.

Egoeraren ziurgabetasuna ikusita, langile kolektibo honek ELAk bultzatuta euren hitzarmen propio bat negoziatzeko bidea izango dela onena erabakitzen du maiatzean. Plataforma komun bat osatu, eztabaidatu eta bilera mordo batekin Balea Igeriketako langileek plataforma bat eraikitzen dute. Bertako edukiek Gipuzkoako kirol instalazio publikoetako hitzarmena oinarritzat hartzen dute, Tolosako kiroldegian sinatu berri duten hitzarmen propioa eredutzat hartu eta Zarauzko errealitateari egokituz.

2016ko ekainean Balea Igeriketako enpresako arduradunengana jotzen dugu plataforma aurkeztuz. Uztailak 8an, udalean, ordezkari politikoek "opor aurretik" erantzun bat emango zigutela hitz ematen digute. Erantzun hori 2016ko urrial 4an etortzen da eta ezezkoa da, hilabete horietan bai telefonikoki eta bai modu formalean bilera eskatu eta arrakastarik ez izanda.

Urriak 4tik abendura, langile kolektibo hau hamaika aldiz bildu da egoeraz hitz egiteko eta argi dute euren hitzarmen propioa nahi dutela. Plegu berriak aterako diren honetan eta kiroldegiaren zerbitzua integratuko den honetan, euren lan baldintzak eurek adostutako dokumentu batean jaso nahi dituzte, baina udalak ez du horretaz hitz egiteko aukerarik ere ematen.

ELAtik hainbat modutara saiatu gara Udalarekin harremanetan jartzen (telefonoz, idatziz bilera eskaerak erregistratuta...) baina **ezinezkoa** da.

Mozio honen bitartez udal gobernuari eta talde politikoei ondorengoa **ESKATZEN DIET**:

-Langileak pairatzen ari diren egoeraren aurrean beraiekiko elkartasuna eta konpromezua.

-Lan baldintza duinen alde eta gure gizartean hain zabaldua dagoen prekarietatearen aurka ardura har dezatela eta arazoari konponbidea emateko martxan jarri beharreko mekanismo guztiak jarri ditzatela.

Eztabaidaren bukaeran, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	20	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	—	

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, onartu egin du EH BILDU eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek aurkeztutako mozioa.

7.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamaikak hogeit gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.